

MERKATARITZA FONDO BATERATUAREN BALIO NARRIADURA

GRADU BUKAERAKO LANA

Lehenengo deialdia

EGILEA: OLAIA GAINZA RUBIA

ZUZENDARIA: IGOR ALVAREZ ECHEVERRIA

IKASTEGIA: DONOSTIAKO ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA

eman ta zabal zazu



universidad
del país vasco

euskal herriko
unibertsitatea



AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Negozioen konbinaketa	6
2.1 Negozio bateratuak edo jabetzaren kontrolik gabeko kooperazioa	6
2.2 Negozioen konbinaketak	7
2.2.1 Aktibo netoen eskuraketa edo transferentzia	7
2.2.2 Enpresen fusio eta eszizioak	8
2.2.3 Partizipazio-hartzeak: sozietate multzoak	8
2.3 Baterakuntzarako aplikatu beharreko araudi kontableak	9
2.3.1 Orokorki Onartutako Kontabilitate Printzipio eta Arauak	10
2.3.2 Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauak	11
2.4 Multzoaren kontzeptua: sozietate menderatzailea eta menpeko sozietatea	12
2.4.1 Kontrolerako beste formak	12
2.4.2 Boto eskubideen kontaketa	13
2.5 Beste sozietate motak: taldeanitzak eta elkartuak	13
2.5.1 Sozietate taldeanitzak	13
2.5.2 Sozietate elkartuak	14
3. Urteko kontu bateratuak aurkezteko beharrak eta salbuespenak	14
3.1 Urteko kontu bateratuak aurkezteko beharra	14
3.2 Baterakuntzarako beharraren salbuespena	15
3.2.1 Taldearen tamainagatiko salbuespena	15
3.2.2 Azpitaldeagatiko salbuespena	16
3.2.3 Irudi fidelarentzako interes erlatibo gabeko partizipazioagatiko salbuespena	17
4. Baterakuntza metodoak	17
4.1 Integrazio globalaren metodoa	17
4.2 Integrazio proportzionalaren metodoa	18
4.3 Partizipazioaren metodoa	20
4.4 Integrazio metodoen aplikazioa	21
5. Baterakuntzaren kontabilitate prozesua	21
5.1 Homogeneizazioa	22
5.2 Agregazioa	22
5.3 Eliminazioak	22
5.3.1 Barne eragiketengatiko eliminazioak	23

5.3.2 Ondare garbi eta inbertsioaren arteko eliminazioa.....	23
5.3.2.1 Lehenengo baterakuntza datan	23
5.3.2.2 Lehenengo baterakuntza ondorengo	
Baterakuntza datetan	25
6. Merkataritza fondo bateratuaren definizioa	25
7. merkataritza fondo bateratuaren kokapena kontabilitatean	28
8. merkataritza fondo bateratuaren tratamendu kontablea	29
8.1 Merkataritza fondo bateratuaren sorkuntza.....	29
8.2 Merkataritza fondo bateratuaren lehenengo baterakuntza	
ondorengo tratamendua.....	33
8.2.1 Finantza Informazioari Buruzko 3. Araua:	
negozioen konbinaketak	33
8.2.2 Nazioarteko Kontabilitateko 38. Araua:	
aktibo ukiezinak	33
8.2.3 Nazioarteko Kontabilitateko 36. Araua:	
aktiboen balio narriadura.....	34
9. Merkataritza fondo bateratua benetako urteko kontuetan.....	37
Abengoa S.A	38
Abertis Infraestructuras S.A.....	38
Acciona S.A.....	40
ACS, Actividades de Construcción y Servicios S.A.....	42
Amadeus It Holding S.A.....	44
Arcelormittal S.A.....	45
Endesa	46
Banco de Sabadell S.A.....	46
Banco Popular Español S.A.....	47
Banco Santander S.A.....	49
Bankia.....	50
Bankinter S.A.....	51
BBVA Banco Bilbao Vizcaya Argentaria S.A.....	52
BME Bolsas y Mercados Españoles S.A.....	53
Caixabank S.A.....	54
DIA, Distribuidora Internacional de Alimentación S.A.....	55
Enagas S.A.....	56
FCC Fomento de Construcciones y Contratas S.A	57

Ferrovial S.A.....	59
Gamesa Corporación Tecnológica	60
Gas Natural SDG, S.A.	60
Grifols S.A.	62
Iberdrola S.A.....	63
Indra Sistemas S.A (A seriea).....	64
Industria del Diseño Textil Inditex S.A.....	66
International Airlines Group	66
Jazztel S.A.....	67
Mapfre S.A.....	68
Mediaset España Comunicación.....	70
OHL Obrascon Huarte Lain S.A.....	71
Red Eléctrica Corporación	72
Repsol S.A.....	72
Sacyr S.A.....	73
Técnicas Reunidas S.A.....	74
Telefonica S.A.	75
Laburpen taula.....	76
Laburpen grafikoak	78
10. Ondorioak	83
11. bibliografia	85

1. SARRERA

Globalizazioaren prozesuak aldaketa handiak suposatu ditu esparru desberdin askotan. Estatuak inoiz bezalako harreman estuak dituzte eta, ondorioz, gaur egungo merkataritza lehen baino askoz nazioarteratuagoa dago. Horrela, sozietate eta estatuak egoera berri honetara egokitu behar izan dira. Horretarako, sozietateek euren tamaina egokitzen saiatu dira negozioen konbinaketekin, fusio eta absortzioekin zentzu zorrotzenez eta bertsio finantzarioan, sozietate taldeekin. (Martínez Churriaque, Rodríguez Molinuevo, Álvarez Etxeberria, Ipiñazar Petralanda, 2008)

1986ko urtarrilean Espainia Europar Batasunean sartzeak (garai horretan Europar Komunitate Ekonomikoa) espainiar merkatal legedia komunitatean zegoen sozietate zuzenbidera egokitu beharra suposatu zuen. 83/349/CEE Zazpigarren Direktibak (2003/51/CE Direktibagatik eraldatutakoa) sozietate taldeek urteko kontu bateratuak aurkezteko zuten beharra arautzen zuen. (Martínez Churriaque et al. 2008)

Sozietate taldeak, normalean merkataritza sozietateez osatutakoak, gehienetan sozietate batek beste baten kapitalean parte hartzearen ondorioz sortzen dira, bigarren honen gain nolabaiteko kontrola izateko asmoz. Beste sozietate baten kapitalaren eskuraketa finantzario bat da, hau menderatzeko asmoz, menderapen hau eskuratutakoaren gobernu organoen kontrolaren inguruan oinarrituz. (Martínez Churriaque et al. 2008)

Badaude ordea, batak bestearen kapitalean parte hartu gabe sozietate talde bat osatzen duten sozietateak ere. Kasu hauetan, zuzendaritza berearen menpe daude, baina ez dago sozietate menperatzailearik, soilik administrazio organoa partekatzen dutelarik. Talde hauei talde horizontalak edo kooperaziorako taldeak esaten zaie, aurrekoak bertikalak izanik. (Labatut Serer, 2013)

Esan bezala, Zazpigarren Direktibak bi taldeak barneratzen ditu eta horrela barneratu zen hasiera batean espainiar legedian ere, 1989/19 legean. Hala ere, urteko kontuak formulatzeko arauak onartzen dituen 1991/1815 Errege dekretuak Sozietate talde bat sozietate menderatzaileak eta menpekoek osatzen zutela dio. Hau da, batek besteen gain kontrola duenean osatuko dela sozietate taldea. Beraz, dekretu honen bitartez, espainiar araudiak talde horizontalak ez ditu sozietate talde moduan aitortzen. Ondorioz, merkatal legislazioak talde horizontalei urteko kontu bateratuak aurkezteko beharretik kendu zien. (Martínez Churriaque et al. 2008)

Urteko kontu bateratuak aurkezteko beharraren barruan, merkataritza fondoari buruzko informazioa emateko beharra dago. Merkataritza fondoa kontabilitateko elementu berezia da, identifikaezina izan arren, balantzea adierazten baita eta, beraz, nahiz eta aktibo ukiezinen barne egon, arau bereziak aplikatu behar zaizkio.

Duela urte gutxi arte, erregulatzailen gehiengoak merkataritza fondoa denbora epe jakin batez amortizatzea eskatzen zuten, beti ere 20 urteko epea gainditu gabe. Hala ere, Financial Accounting Standard Board-ek¹ (FASB-ek) bere negozioen konbinaketen inguruko proiektuan 2001 urtean SFAS 141a eraldatu zuen, Goodwill and other intangible assets, merkataritza fondoaren

¹ Sektore pribatuko organismoa independentea da, Amerikako Estatu Batuetan Informazio Finantzarioaren eta Kontablearen arauak ezartzen dituenak.

amortizazioa honen urteroko balio narriaduraren analisiagatik ordezkatzuz. Zentzu berean, International Accounting Standard Board-ek² (IASBek 2004ean baita ere bere negozioen konbinaketan inguruko proiektuaren barne, merkataritza fondoaren amortizazioaren beharra kendu zuen eta 2004ean onartutako NIC36ean honen inguruko gutxienez urteroko balio narriaduraren analisiak ezarri zituen. (Calvo González Vallinas, Corona Romero, Bejarano Vázquez 2013)

Lan honetan egin nahi duguna zera da; merkataritza fondoari buruz espainiar legediak gaur gun esaten duena aztertu eta ondoren arau internazionalak diotenarekin konparatu. Horrela, merkataritza fondoaren balio narriadura nola burutzen den azalduko dugu eta gainera, errealitatean benetako sozietateek euren urteko kontu bateratuetan honi buruz ematen duten informazioa aztertuko dugu, aurretik landutakoarekin bat datorren ala ez ikusteko.

Horretarako, Espainiar Legeak aztertuko ditugu eta baita arau internazional desberdinek diotena ere, hala nola; Informazio Finantzarioako Nazioarteko Arauak (NIIF) edo Nazioarteko kontabilitate Arauak (NIC). Gainera, Merkataritza kodea edo Kapitaleko Sozietateen Legea bezalakoak erabiliko ditugu ere bai. Errealitatean merkataritza fondo bateratuaren balio narriadurari ematen zaion tratamendua eta garrantzia aztertzeke, IBEX 35eko sozietateek beraien urteko kontu bateratuetan honi buruz esaten duena aztertuko dugu.

² Sektore pribatuko organismoa independentea da, Informazio Finantzarioaren Nazioarteko Arauak garatu eta onartzen dituenak. 2001ean sortu zen Kontabilitateko Nazioarteko Arauen Komitea ordezkatzuz.

2. NEGOZIOEN KONBINAKETA

Merkataritza fondoa zer den ondo ulertzeko, ezinbestekoa da bere sorreraren testuingurua ondo ezagutzea, eta, horretarako aldi berean, negozioen konbinaketak nola ematen diren jakitea. Beraz, egin behar dugun lehenengo gauza, hori aztertzea izango da.

Ezin da zalantzan jarri azken urteetan globalizazioa mundu osoan zehar hedatu egin dela. Honekin, merkatu internazionalak handitu egin dira eta beraz, enpresa askok eta askok merkatu berri hauetara egokitu behar izan dira, hauen tamaina handituz eta merkatu berrietara zabalduz. Horretarako, estrategia berriak sortu behar izan dira, euren negozioaren inguruan aukera berriak aztertuz. Egoera honetan, enpresa taldeen irudia izugarritzko garrantzia hartu du gaur egungo merkatuetan. (Alvarez, Ipiñazar, Martínez eta Rodríguez, 2007)

Enpresek beren aktibitateen garapenaren oinarritzko helburuak aurrera eramateko hainbat estrategia lehiakor barneratzen dituzte beren planetan. Estrategia hauen artean zabalduenetako bat negozioen konbinaketa da. Estrategia mota hau indartua izan da azken urteetan emandako garapen ekonomikoagatik, merkatuen globalizazioagatik eta ekonomia beraren globalizazioarengatik. Beste kausen artean, ondorengoak nabarmentzen dira: (Serra, Labatut, Arce, Cervera eta Pardo, 2011. 20.orr.)

- 1) Enpresek eskuragarri dituzten merkatuen zabalkuntza.
- 2) Kapital merkatuen internazionalizazioa.
- 3) Iturri finantzario desberdinen dibertsifikazio eta konplexutasuna.
- 4) Garapen teknologikoa eta teknologiaren transferentzian erraztasunak.
- 5) Lehiakortasunaren hazkundera.

Enpresen kontzentrazioen estrategiek, enpresen tamaina handitzen du, ia ezinbestekoa dena gaur egungo merkatu lehiakorretan aurrera jarraitu ahal izateko. Beste abantaila batzuen artean ondorengoak aipatzekoak dira: (Serra et al. 2011. 20.orr.)

- 1) Merkatu berrietan sartzea.
- 2) Inbertitzaileen dibertsifikazioa.
- 3) Finantza iturri berrietara sarbidea.
- 4) Teknologia berrien aplikazioa.
- 5) Lehiakortasunaren gehitzea, eskala ekonomia edo kostuen murrizketagatik.

Enpresen kontzentrazioarako prozesuak era desberdinetara burutu daitezke. Eragiketa hau burutzeko moduak enpresa bakoitzak bere kontabilitatean aurkeztu beharko duen informazioa finkatuko du. Guk bi modu ohikoenak aipatuko ditugu: (Serra et al. 2011. 21.orr.)

- 1) Negozio bateratuak edo jabetzaren kontrolik gabeko kooperazioa.
- 2) Negozioen konbinaketak.

2.1 Negozio bateratuak edo jabetzaren kontrolik gabeko kooperazioa.

Negozio bateratu bat bi pertsona fisiko edo juridiko edo gehiagorengatik kontrolatutako jarduera ekonomiko bat da. Efektu hauetara, baterako kontrola partaideek ustiapen eta finantza politikak zuzentzeko eskubidea partekatuko dutela ziurtatzen duen kontratu bidezko akordio bat edo akordio estatutario bat

izan daiteke. Baterako kontrol honen helburua, partaideek etekin ekonomikoak lortzea izango da. (Kontabilitate Plan Orokorra, 2007)

Estrategia hau burutzen denean ez da izaera juridiko propio duen sozietate berririk sortzen. Hain zuzen, izaera juridiko propioa duten hainbat enpresa elkartzen dira komunean duten proiektu bat aurrera eraman ahal izateko, bakoitzak baliabide desberdinak eskainiz. Enpresa kontzentrazio mota hau partzuergo, *joint-venture* edo oro har enpresa asoziazio bezala ere ezagutzen da. (Serra et al. 2011. 21.orr.)

Kontabilitateari dagokionez, sozietaterik sortzen ez denez, urteko kontuak soilik inbertsio proiektuan parte hartzen duten sozietateek aurkeztu beharko dituzte. Hauen barne noski, negozio bateratuen informazioa barneratu beharko dute, memorian hain zuzen. Kontabilitate Plan Orokorra hauei buruzko aipatu beharreko gutxieneko informazioa zehazten du. (Serra et al. 2011. 21.orr.)

2.2 Negozioen konbinaketak.

Negozioen konbinaketa batek beste enpresa baten aktibo netoen eskuraketa edo enpresa honen jabetza tituluen erosketa suposatzen du. Eragiketa hau esku-dirua edo baliokideak transferituz edo jabetza tituluak (akzioak edo partizipazioak) igorri egin daiteke. Gainera, transakzioa enpresa baten eta beste baten bazkideen artean burutu daiteke edo baita ere, konbinatzen diren sozietateen bazkideen artean. (Serra et al. 22.orr.)


Horretarako, negozioen konbinaketa modu nagusi bezala ondorengoak desberdinduko ditugu: (Serra et al. 2011. 22.orr.)

- 1) Aktibo netoen eskuraketa edo transferentzia.
- 2) Enpresen fusio eta eszizioak.
- 3) Partizipazio-hartzeak: sozietate multzoak.

2.2.1 Aktibo netoen eskuraketa edo transferentzia.

Kasu honetan enpresa batek beste baten ondare elementuak bereganatzen ditu, hauek lehenengoaren ondarekoak izatera pasaz. Jabetza aldaketa hau aurrera eraman ahal izateko, erosle eta saltzaileen artean salmenta prezio bat ezarri beharko da eta, erosketa burutu ondoren, ondare elementu guztiak eskuz aldatu badira, jabe zaharrak enpresa horretatik guztiz aldentzeko dira eta eskuratutako sozietatearen disoluzioari hasiera emango zaio. (Serra et al. 2011. 22. orr.)

Argiago ikusteko eta ondorengo konparaketa errazagoa izan dadin, goazen adibide bat ikustera:



1. Irudia: aktibo netoen transferentzia.
Iturria: Serra et al. 2011. 22. orr. Egileak egokitua.

Demagun A enpresak B eta C enpresen aktibo neto guztiak eskuratu dituela. Horrelako kasuetan B enpresaren bazkide diren d, e eta f bazkideak eta C


enpresaren bazkide diren g, h eta i bazkideak negoziotik guztiz aldentzen dira eta B eta C sozietateak desagitzen dira, A enpresa bakarrik geratuz, B-k eta C-k zituzten aktibo netoak barne.

Kontabilitatearen aldetik, esan beharra dago A sozietateak bere urteko kontuetan B eta C sozietateen ondare elementuak barneratu beharko dituela, eta negozioen konbinaketa eman den ekitaldian, honi buruz kontabilitate planak dioen moduan informatu beharko duela bere memorian. (Serra et al. 2011. 22.orr.)

2.2.2 Enpresen fusio eta eszizioak.

Fusio bat sozietate berri bat eratzeko asmoarekin juridikoki independenteak diren bi pertsona edo gehiago elkartzan direnean ematen den prozesua da. Sozietate desberdinen ondareak elkartzuz, sozietate juridiko berri bat sortzen da. Sozietate batek gainontzekoen ondarea bereganatzen badu, absortzio bidezko fusio baten aurrean egongo ginатеke. (Serra et al. 2011. 23.orr.)

Ikus dezagun fusio baten adibide bat:



2. Irudia: absortzio bidezko fusioa.

Iturria: Serra et al. 2011. 23. orr. Egileak egokitua.

Kasu honetan, A, B eta C enpresen arteko fusio bat eman da, absortzio bidezko fusio bat hain zuzen. Aurreko kasuarekin konparatuz, ikus dezakegu fusioaren kasuan B eta C sozietateen bazkideak ez direla aldentzen, baizik eta A enpresaren parte izango direla.


Kontabilitateari dagokionez, eragiketa hau eta gero, bakarrik A sozietateak aurkeztu beharko ditu urteko kontuak, B sozietatea dagoeneko desagertu baita. Horretaz gain, fusioa ematen den ekitaldian, kasu honetan A enpresak bere memorian fusioari buruzko informazioa barneratu beharko du. (Serra et al. 2011. 23.orr.)

2.2.3 Partizipazio-hartzeak: sozietate multzoak.

Oraingoan sozietate batek beste baten jabetza titulu guztiak edo parte bat eskuratzen du. Ondorioz, lehenengoak bigarrenaren kontrola bereganatuko du eta biek sozietate multzo bat osatuko dute. Kontrola finantza eta ustiapen politikak zuzentzeko ahalmena da, enpresaren jardueratik etekin ekonomikoa lortzeko helburuarekin. (Serra et al. 2011. 23.orr.)

Ikuspuntu ekonomiko batetik sozietate multzo bat erabakiak hartzeko unitate ekonomiko bat izango litzateke, nahiz eta ikuspuntu juridiko batetik sozietate independenteak diren. (Serra et al. 2011. 24.orr.)

Hau izango litzateke sozietate multzo baten adibide bat:



3. Irudia: sozietate multo baten adibidea
Iturria: Serra et al. 2011. 24. orr. Egileak

Sozietate multzoen kasu honetan, A sozietateak B, C eta D enpresen akzioen gehiengoa eskuratzen du, hauen kontrola lortuz. Horrela, erabakiak hartzeko unitate bat sortu da, A-k B eta C-ren erabakitze organoak kontrolatu baititzake. Hau horrela da B-ren bazkide den d-k, C-ren bazkide den g-k eta D-ren bazkide den j-k ez dutelako erabakietan A-ri aurre egiteko ahalmenik, boto-eskubideen gehiengoa A-k baitu.

Kontabilitatearen aldetik, sozietate bakoitzak bere urteko kontu indibidualak aurkeztu beharko ditu eta gainera, taldeak bere urteko kontu bateratuak aurkeztu beharko ditu baita ere. (Serra et al. 2011. 24. orr.)

2.3 Baterakuntzarako aplikatu beharreko araudi kontableak.

Espanian urteko kontuen baterakuntza lantzen duten arauak ondorengoak dira:

- 1) Merkatal Kodea arautzen duen 1885ko abuztuak 22ko Errege Dekretua.
- 2) 1159/2010 Errege Dekretua, Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauak (UKBFA, gazteleraz NFCAC) onartzen dituenak.
- 3) Europar Batasunak bere Erregelamenduen bidez onartutako Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauak (gazteleraz NIIF).

Merkataritza Kodeak bere 42. artikulutik 49.era kontabilitatearen baterakuntza erregulatzen du. Artikulu hauek hirugarren sekzioa osatzen dute, "Sozietate taldeen urteko kontuen aurkezpena". Gaur egungo Merkataritza kodeko testua Europar Batasuneko araudira egokitua izan zen uztailaren 4ko 16/2007 legearen bitartez, azkeneko honekin harmonian geratuz. (Serra et al. 2011. 24. orr.)

Irailak 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak, Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauak onartzen dituenak, Merkataritza Kodean emandako arauzko garapena osatzen du. Errege Dekretu honek gainera, azaroak 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartzen duen Kontabilitate Plan Orokorra eta baita azaroak 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onartzen duen Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra eraldatzen ditu. (Serra et al. 2011. 25. orr.)

Espaniar merkatal sozietate batzuk zuzenean Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauak aplikatu beharko dituzte. Arau hauek *International Accounting Standards Board*-ek (IASB) jaulkitakoak dira. Gainera, Europar Batasunean Europar Komisioak onartutako Erregelamenduen bitartez onartu behar dira. Onartuak izan direnean, Europar Batasuneko Eguneroko Ofizialean argitaratu beharko dira. (Serra et al. 2011. 25. orr.)

Merkataritza Kodeko 43 bis artikulua (1159/2010 Errege dekretuak bere 2. artikuluan garatzen duena) aplikatu beharreko araudia zehazteko, bi talde bereizten ditu. Alde batetik, Europar Batasuneko baloreen merkaturen batean kotizatzen duen sozietateren bat barneratzen duten sozietate taldeak egongo liriteke eta, bestetik, kotizatzen duen sozietaterik barneratzen ez duten sozietate taldeak. (Serra et al. 2011. 25. Orr.; Código de Comercio, 2014, 43. art.)

a) Kotizatzen duen sozietateren bat barneratzen duten taldeak:

Talde hauek Europar Batasuneko Erregelamenduek onartutako Informazio Finantzarioari buruzko Nazioarteko Arauak aplikatu beharko dituzte. Gainera, aplikagarriak izango zaizkie baita ere Merkataritza Kodeko 42, 43, 48 eta 49 artikulua. Artikulu hauek, aldi berean, Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauek 1etik 3ra eta 6tik 9rako artikuluetan garatzen dituzte. Aipatutako artikuluek sozietate taldearen kontzeptua, kontrolaren presuntzioa, boto eskubideen kontaketa, baterakuntzarako beharra eta honetarako salbuespenak lantzen dituzte. (Serra et al. 2011. 25. orr.; Código de Comercio, 2014, 43.bis art.)

b) Kotizatzen duen sozietaterik barneratzen ez duten taldeak:

Talde hauek hasiera batean Merkataritza Kodeak eta Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauek barneratzen dituzten kontabilitate arauak aplikatu beharko dituzte. Hala ere, nahi izanez gero, Finantza Informazioari buruzko Arau Internazionalak aplikatu ditzakete, hau egiteko beharra dutenen baldintza berdinetan. (Serra et al. 2011. 25. orr Código de Comercio, 2014, 43. Art. A atala)

Beraz, erregela orokor moduan esan genezake Europar Batasuneko merkaturen batean kotizatzen duen sozietateren bat barneratzen duen taldeak arau internazionalak aplikatu beharko dituela eta kotizatzen duen sozietaterik barneratzen ez dutenek berriz, dagokion estatuko arauak.

Hala ere, aipatu beharra dago badaudela hainbat xedapen non esaten den araudi hauek ez direla aplikagarriak izango hainbat sozietate multzoei, hala nola, finantza eta aseguruaren sektoreko sozietate multzoei. (Serra et al. 2011. 26. orr.)

2.3.1 Orokorki onartutako kontabilitate printzipio eta arauak.

Espainiar araudia aplikatzen duten multzoei, urteko kontu bateratuak garatzeko jarraitu beharko dituzten orokorki onartutako kontabilitate printzipio eta arauak ondorengoak izango dira: (Serra et al. 2011. 27. orr.)

- 1) Merkataritza Kodea eta gainerako merkatal legeria.
- 2) Kontabilitate Plan Orokorra eta honen egokitzapen sektorialak.
- 3) Urteko kontu bateratuak garatzeko araudia eta honen egokitzapen sektorialak.
- 4) Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzaren Institutuak ezarritako garapen legeak.
- 5) Zehazki aplikagarria den gainontzeko legeria.

Hauen barne hutsuneren bat egotekotan, administratzaileek euren irizpide profesionalak aplikatu beharko dituzte, betiere Kontabilitate Plan Orokorren esparru kontzeptuala errespetatuz. (Serra et al. 2011. 27. orr.)

2.3.2 Finantza Informazioarako Nazioarteko Arauak.

Esan bezala, Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauak aplikatzen dituzten sozietateek Europar Batasunak hartutako xedapenez gain, Merkataritza Kodeko 42, 43, 48 eta 49 artikulua aplikatu beharko dituzte, baita Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauetako 1etik 3ra eta 6tik 9rako artikulua ere. (Serra et al. 2011. 27. orr.)

Baterakuntzari zuzenean gehien eragiten dioten Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Arauak ondorengoak dira: (Serra et al. 2011. 27,28. orr.)

- 1) Nazioarteko 27. Kontabilitate Araua: Bateratutako eta banandutako finantza egoerak.
- 2) Nazioarteko 28. Kontabilitate Araua: Elkartutako entitateetan inbertsioak.
- 3) Nazioarteko 31. Kontabilitate Araua: Baterako negozioetan partizipazioa.
- 4) Finantza Informazioarako Nazioarteko 3. Araua: Negozioen konbinaketa.

Gainera, lehenago aipatutako IASB-en arauak hartutako Europar Batasuneko Erregelamenduak ondorengoak dira: (Serra et al. 2011, 28. orr)

- 1) 2011ko otsailak 18ko Komisioaren 149/2011 Erregelamendua, 1126/2008 Erregelamendua eraldatzen duena. Azken honekin Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Erregelamenduari bat datozen Nazioarteko Kontabilitate Arau batzuk hartzen dira, zehazki Finantza Informazioari Buruzko Arau Internazionalen hobekuntzen ingurukoak.
- 2) 2009ko ekainak 3ko Komisioaren 495/2009 Erregelamendua, 1126/2008 Erregelamendua eraldatzen duena. Azken honekin Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Erregelamenduari bat datozen Nazioarteko Kontabilitate Arau batzuk hartzen dira, zehazki Finantza Informazioari Buruzko hirugarren Arau Internazionalaren hobekuntzen ingurukoak.
- 3) 2009ko ekainak 3ko Komisioaren 496/2009 Erregelamendua, 1126/2008 Erregelamendua eraldatzen duena. Azken honekin Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Erregelamenduari bat datozen Nazioarteko Kontabilitate Arau batzuk hartzen dira, zehazki Finantza Informazioari Buruzko hogeita zazpigarren Arau Internazionalaren hobekuntzen ingurukoak.
- 4) 2009ko urtarrilak 23ko Komisioaren 70/2009 Erregelamendua, 1126/2008 Erregelamendua eraldatzen duena. Azken honekin Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Erregelamenduari bat datozen Nazioarteko Kontabilitate Arau batzuk hartzen dira, zehazki Finantza Informazioari Buruzko Arau Internazionalen hobekuntzen ingurukoak.
- 5) 2009ko urtarrilak 23ko Komisioaren 69/2009 Erregelamendua, 1126/2008 Erregelamendua eraldatzen duena. Azken honekin Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Erregelamenduari bat datozen Nazioarteko Kontabilitate Arau batzuk hartzen dira, zehazki Finantza Informazioari Buruzko lehenengo Arau Internazionalaren eta Kontabilitateko hogeita hemeretzigarren Arauaren hobekuntzen ingurukoak.
- 6) 2008ko azaroak 3ko Komisioaren 1126/2008 Erregelamendua, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2008 Erregelamenduari bat

etorri, Finantza Informazioari Buruzko Nazioarteko Arau batzuk hartzen dituena.

2.4 Multzoaren kontzeptua: sozietate menderatzailea eta menpeko sozietatea.

Sozietate menderatzailea eta menpeko sozietatea bereizteko, ezinbestekoa da kontrolaz hitz egiten dugunean, zehazki zertaz ari garen jakitea. Kontrola dagoela esango dugu, ondorengo kasuetakoren bat betetzen denean: (Serra et al. 2011. 30.orr.)

- 1) Boto eskubideen gehiengoa duenean.
- 2) Administrazio organoko kideen gehiengoa izendatu edo kargutik kentzeko ahalmena badu.
- 3) Hirugarrenekin aurrera eramandako akordioen bitartez, boto eskubideen gehiengoa lortzeko aukera badu.
- 4) Urteko kontu bateratuak formulatzeko momentuan eta aurreko bi urteetan egondako administrazio organoko kideen gehiengoa bere boto eskubideekin aukeratuak izatea. Kasu hau normalean ematen da menpeko sozietateko administrazio organoko kideen gehiengoa sozietate menperatzaileko administrazio organoko kideak direnean. Aldi berean, esan beharra dago kasu hau ez dela aplikatuko, menpeko izango litzatekeen sozietatea atal honetako bi lehenengo egoeratan dauden beste sozietateren batekin erlazionatuta dagoenean (hauek kontrola izateko lehentasuna izango bailukete).

2.4.1 Kontrolerako beste formak.

Aurreko puntuan aipatutako egoerez gain, badaude ere beste kasu batzuk non sozietate batek beste baten kontrola izan dezakeen nahiz eta akzio edo partizipazioen ehuneko oso txiki bat edo kapitalean inolako partizipaziorik ez izan. (Serra et al. 2011. 31. orr.)

Kontrola dagoela esan ahal izateko, eta ondorioz, sozietate bat taldeko kide den edo ez erabakitze, beste gauza batzuen artean, kontuan hartzen da ea taldeak sozietatearen galdu-irabazietan parte hartzen duen edo ez, baita ustiapen eta finantza erabakietan parte hartzeko ahalmena duen ere. (Serra et al. 2011. 31. orr.)

Ondorengo egoerek, beste batzuen artean, kontrola dagoen edo ez determinatu dezakete: (Serra et al. 2011. 32. orr.)

- 1) Entitatearen (menpekota izango litzatekeena) jarduerak sozietatearen (menderatzailea izango litzatekeena) izenean eta honen interesen onurarako zuzentzen dira, honek onurak edo bestelako abantailak lortuz.
- 2) Sozietateak entitatean erabaki ahalmena dauka, edo honen erabakiak aurrez arri dira entitatearen jardueren onura gehienak bereganatuz.
- 3) Sozietateak entitatearen irabazien gehiengoa jasotzeko eskubidea dauka eta ondorioz, arrisku gehienak bereganatzen ditu.
- 4) Sozietateak, entitatearen jardueren onura ekonomikoez gozatzearen, aktiboek barneratzen dituzten arriskuen gehiengoa bereganatzea.

2.4.2 Boto eskubideen kontaketa.

Boto eskubideen gehiengoak edukitzea kontrolaren existentziaren lehenengo indizioa da; horregatik, kontabilitatearen araudiak eskubide hauen zenbaketarako argibide eta arauak barnetatzen ditu. (Serra et al. 2011. 33. orr.)

Sozietate menderatzaile baten boto eskubideak, berak zuzenean dituen partizipazio edo akzioek ematen dizkietenak gehi, berak modu ez zuzenean kontrolatu ditzakeen boto eskubideak izango dira. Hau da, berak zuzenean dituenak eta bere menpekoek dituztenak, edota, bere menpekoa den pertsona fisiko batek (suposa dezagun, sozietatearen administrazio kontseiluko kide bat) dituenak. Gainera, kontuan izan behar dira baita ere hirugarrenek esleitutako boto eskubideak. (Serra et al. 2011. 33. orr.)

Argiago ikus dezagun, suposatuko dugu menderatzailea den A sozietateak D sozietatearen boto eskubideen %40 duela eta aldi berean, A-ren menpeko diren B eta C sozietateen artean, D-ren boto eskubideen beste %15. Gainera, A sozietatearen administrazio kontseiluko kide batek D sozietatearen boto eskubideen %1 du. Horrela, A sozietateak D sozietatearen boto eskubideen %56 duela esango genuke (zuzeneko 40 eta 16 ez zuzen).

Boto eskubideak kalkulatzeko garaian, kontuan izan behar ditugu momentu horretan ditugunak eta baita, momentu horretan lor genitzakeenak (opzioak). (Serra et al. 2011. 33. orr.)

2.5 Beste sozietate motak: taldeanitzak eta elkartuak.

Baterakuntzan dauden elementurik garrantzitsuenak enpresa taldea osatzen dutenak dira. Hau da, enpresa menderatzailea eta menpekoa. Hala ere, urteko kontu bateratuak egiterakoan, taldetik kanpo dauden beste sozietate batzuk hartu behar dira kontuan. Sozietate taldeanitzak eta elkartuak duden kasuetan hain zuzen. (Alvarez et al. 2007, 14. orr.)

2.5.1 Sozietate taldeanitzak.

Sozietate taldeanitzak menpeko izan gabe, taldeko sozietate bat edo gehiagorengatik eta taldearekin zerikusirik ez duen beste pertsonengatik kudeatuak direnak dira. Hau da, taldeko sozietate batek (edo gehiagok) eta kanpoko beste zenbait subjektuk baterako kontrola dutenean, hau izanda sozietate mota honen ezaugarri nagusia. (Serra et al. 2011. 37. orr.)

Sozietate baten gaineko kontrola dagoela esateko eta taldeanitz bezala definitzeko, ondorengo ezaugarrietakoren bat bete beharko du: (Alvarez et al. 2007, 14. orr.)

- 1) Taldeanitzaren estatutuetan baterako kontrola zehaztea, edo kapital sozialean partaidetza duten sozietateek enpresaren kudeaketa akordio bidez gauzatzea.
- 2) Bazkide guztiek beto-eskubidea izatea.
- 3) Kapital sozialaren partaidetza itxia izatea. Hau da, kapital guztia enpresa jakin batzuen artean banatuta egotea, enpresa berriei ondorengo sarrera galaraziz.

Kontratuzko akordioek edo estatutarioek, baterako kontrola finkatu behar dute, ezinezkoa izanik parte hartzaile bakar batek bere kabuz erabakiak hartzea eta

horrela, sozietatearen jarduera berak bakarrik kontrolatzea. Akordio hauek ondorengo gaiak landu ditzakete: (Serra et al. 2011. 37. orr.)

- 1) Jarduera, iraupena eta baterako negozioaz informatzeko beharra.
- 2) Administrazio organoaren izendapena eta parte-hartzaileen boto eskubideak; adibidez, erabaki estrategikoetan beto eskubiderako eskubidea.
- 3) Parte-hartzaileek kapitalera egindako ekarpenak.
- 4) Baterako negozioaren produkzioaren, sarreren, gastuen edo emaitzen banaketa.

2.5.2 Sozietate elkartuak.

Sozietate hauetan berriz, taldeko enpresa batek edo gehiagok eragin esanguratsua dute kudeaketarako erabakiak hartzerako garaian, baina ez dute kontrol osoa. Hau gerta dadin, ondorengo egoerak bete beharko dira: (Serra et al. 2011. 37. orr.)

- 1) Taldeko sozietate bat edo gehiagok sozietatean parte hartzea.
- 2) Sozietatearen finantza eta ustiapen politiketako erabakietan parte hartzeko ahalmena izan beharko da, kontrol osoa ezta baterako kontrola izan gabe, epe luzerako lotura bat sortuz.

Izatez, ez dute talderik osatzen, ez dutelako elkar menderatzen, baina ustiapen eta finantza arloetako erabakietan eragin nabarmen eta epe luzerakoa dutenez, kontuan izan beharko dira urteko kontu bateratuak egiterakoan. (Alvarez et al. 2007, 15. orr.)

Honetaz gain, araudiak hainbat zantzu ezartzen ditu eragina dagoen ala ez zehazteko. Zantzu nagusia gutxienez boto eskubideen %20 izatea da. Hala ere, egon daitezke kasuak non esandako boto eskubide baino gehiago izanda, dagoen eragina esanguratsua ez den eta aldiz, beste batzuk non boto eskubide gutxiago izanda, eragina esanguratsua den. Beraz, eragina esanguratsua dela esan ahal izateko, ondorengo kasuren bat bete beharko da. (Serra et al. 2011. 38. orr.)

- 1) Sozietatearen administrazio kontseiluan edo zuzendaritzako baliokide den organo batean ordezkapena izatea.
- 2) Politiken finkapen prozesuetan parte hartzea, dibidenduak eta bestelako banaketan erabakiak barne.
- 3) Sozietatearekin garrantzi erlatiboko transakzioak.
- 4) Zuzendaritzako pertsonala partekatzea.
- 5) Ezinbesteko informazio teknikoaren hornikuntza.

Sozietate elkartu batean partizipazioa urteko kontu bateratuetako balantzeari adierazi beharko da partida independente batean eta epigrafe egoki baten barruan. (Serra et al. 2011. 38. orr.)

3. Urteko kontu bateratuak aurkezteko beharra eta salbuespenak.

3.1 Urteko kontu bateratuak aurkezteko beharra.

Kontuak bateratzeko obligazioa Merkataritza Kodeko 42 eta 43 artikuluetan eta Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauetako 6tik 9rako artikuluetan araututa dago. (Serra et al. 2011. 38. orr.)

Merkataritza Kodeko 42.1 eta Urteko Kontuak Formulatzeko Arauetako 6.1 artikuluek diotenez, sozietate multzo baten sozietate menderatzaile orok, urteko kontu bateratuak aurkezteko beharra izango dute. Behar hau azpitaldeetara hedatuko da baita ere, hau da, sozietate talde baten barruan menpeko den sozietate bat aldi berean, beste talde baten menderatzailea denean. Hala ere, ondoren ikusiko dugun bezala, azkeneko hauen zenbait kasuetan ez dute urteko kontu bateratuak aurkezteko beharrik izango. (Serra et al. 2011. 38. orr.; Igor Alvarez et al. 23. orr.; Código de Comercio, 2014, 42. Art)

Urteko kontu bateratuak bateratutako egoera balantzeak, galdu-irabazien kontu bateratuak, ondare garbiaren aldaketan egoera orri bateratuak, diru-fluxuen egoera orri bateratuak eta bateratutako memoriak osatzen dituzte. Behin hauek formulatuta, Merkatal Erregistroan depositatu beharko dira. (Serra et al. 2011. 39. orr.; Igor Alvarez et al. 23. orr.)

Nahiz eta menderatzailea den sozietateak taldearen urteko kontu bateratuak aurkeztu, taldeko kide diren sozietate guztiek euren urteko kontu individualak aurkeztu beharko dituzte. (Serra et al. 2011. 39. orr. Igor Alvarez et al. 23. orr.; Código de Comercio, 2014, 42. Art)

3.2 Baterakuntzarako behararen salbuespena.

Kontabilitate araudiak menderatzailea den sozietate batek urteko kontu bateratuak aurkezteko beharrik ez izateko hiru egoera aztertzen ditu. Egoera hauek ondorengoan dira: (Serra et al. 2011. 39. orr.)

- 1) Taldearen tamainagatiko salbuespena. (Merkataritza kodeko 43.1 eta UKBFA-ko 7.1.a eta 8. artikulua)
- 2) Azpitaldeagatiko salbuespena. (Merkataritza kodeko 43.2 eta UKBFA-ko 7.1.b eta 9. artikulua)
- 3) Irudi fidelarentzako interes erlatibo gabeko partizipazioagatiko salbuespena. (UKBFA-ko 7.1.c artikulua)

Esan beharra dago salbuespen hauek ez direla aplikagarriak izango sozietateak euren sektoreagatik araudi berezi batera lotuta daudenean. (Serra et al. 2011. 39. orr.)

3.2.1 Taldearen tamainagatiko salbuespena.

Urteko kontu bateratuen prestaketak honek ematen dituen etekinek baino kostu handiagoa duenean, sozietatea baterakuntzarako salbuespena hartu dezake. Urteko kontuen prestakuntzaren kostua eta honen etekinak kalkulatzeko oso zaila ziateen denez, taldearen tamainari begiratzen zaio salbuespen hau aplikagarria den edo ez erabakitzeko, tamaina txikiko taldeak baterakuntzarako beharretik kanpo utziz. (Serra et al. 2011. 39. orr.)

Sozietate talde bat txikia dela esango dugu, azkeneko ekitaldian, Kapitaleko Sozietateen Legea arautzen duen uztailak 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legislatiboak galdu-irabazien kontu laburtua aurkezteko ezartzen dituen limiteetako bi gainditzen ez dituenean. Gainera, ondorengo ezaugarriak bete beharko ditu: (Serra et al. 2011. 40. orr.; Código de Comercio, 2014, 43.1 art.)

- 1) Ekitaldi itxiera data aurreko bi ekitaldietan aipatutako mugak gainditu ez izana.
- 2) Europar Batasuneko erregulatutako merkatuetan kotizatzen duen sozietaterik ez izatea.

Esan bezala, ezarritako limite hauek jarraingo bi urtez gainditu gabe egon beharko da sozietate bat salbuetsita egoteko. Baina modu berean, salbuetsita dagoen sozietate batek ekitaldi batez bakarrik gainditzen baditu, salbuetsita egoten jarraituko da. Salbuespenetik ateratzeko, bi urtez gainditu beharko ditu. (Serra et al. 2011. 40. orr.)

Aipatutako limiteak ondorengoak dira: (Ley de Sociedades de Capital, 2010, 257.1 art.)

Aktibo totala 4 milioi euro baino gehiagokoa ez izatea.

- 1) Negozio zifraren zenbateko garbiak 8 milioi euroko zenbatekoa ez gainditzea.
- 2) Ekitaldian zehar egondako langileen batez bestekoa 50 baino gehiagokoa ez izatea.

Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Araudiak dio sozietate taldearen aktibo guztia zein den kalkulatzeko, baterakuntzan egin beharreko ondarearen eliminazioa burutu beharko genukeela, eliminazio honetan emandako aldaketak kontuan izan beharko baikenituzke. Honek esan nahi du sozietate talde baten dominatzaileak salbuetsita egon daitezkeen edo ez aztertzeke, baterakuntzaren prozesu guztia burutu beharko lukeela, esan bezala ondarearen eliminazioan sortuko lirakekeen aldaketak aztertzeke. (Serra et al. 2011. 40. orr.; (Normas para Formulación de Cuentas Anuales Consolidadas, 2010, 8.2 art.)

Arrazoi honengatik, Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauek esaten dute talde bat salbuespenean sartzen den edo ez kalkulatzeko, limiteak %20ean handitzeko eta baterakuntzan emango lirakekeen aldaketak kontuan ez hartzeko. (Serra et al. 2011. 40. orr.; NFCAC, 2010, 8.3 art.)

3.2.2 Azpitaldeagatiko salbuespena.

Sozietate talde baten barruan dagoen azpitalde baten informazioa, taldearen urteko kontu bateratuetan dagoenez, batzuetan, azpitalde horretako menderatzailea azpitalde horren urteko kontu bateratuak aurkezteko beharretik salbuetsita egon daiteke. Egoera hau emateko ondorengo baldintzak eman beharko dira: (Serra et al. 2011. 41. orr.; Código de Comercio, 2014, 43.2 art)

- 1) Espainiar legedia aplikatu behar duen azpitaldeko sozietate dominatzaileak, aldi berean Europar Batasuneko estatu baten legedia aplikatu behar duen taldeko menderatzaile baten menpekota izatea. Hau da, azpitaldearen matrize espainiarrak, aldi berea Europar matrize bat izatea. Beti ere, ondorengoa betetzen bada:
 - Azpitaldearen menderatzailearen menderatzaileak, gutxienez %50eko partizipazioa izatea.
 - Gutxienez partizipazioen %10a duten bazkide edo akzionistek urteko kontu bateratuen formulazioa eskatu ez izatea.
- 2) Sozietateak Europar Batasuneko merkatuetan kotizatu ez izatea.

Aurreko ezaugarriez gain, bateratutako kontabilitate informazioaren inguruko beste batzuk ezartzen dira, hala nola: (Serra et al. 2011. 41. orr.)

- 1) Azpitaldearen urteko kontu bateratuek barneratu beharko luketen informazioa, europar sozietate menderatzaile bat duen sozietate talde handiago baten urteko kontu bateratuetan barneratua egotea.

- 2) Azpitaldearen urteko kontuan aurkeztu beharko lituzkeen sozietateak, bere urteko kontu indibidualetan salbuespena aipatzea, zein taldeko kide den esatea, arrazoi soziala eta baita taldeko menderatzailea den sozietatearen egoitza fiskala esatea (azpitaldearen informazioa sozietate honek aurkeztutako urteko kontu bateratuetan bilatu ahal izateko).
- 3) Azpitaldearen sozietateak, bere urteko kontu indibidualekin batera, talde handiaren urteko kontu bateratuak aurkeztea dagokion Merkatal Erregistroan. Gainera, dokumentu hauek, aurkezten diren Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko dira.

3.2.3 Irudi fidelarentzako interes erlatibo gabeko partizipazioagatiko salbuespena.

Kontabilitate Plan Orokorrak dio sozietate batek beste baten gain duen partizipazioak lehenengoaren irudi fidelaren gain garrantzi erlatiboa esanguratsua ez denean, urteko kontu bateratuak aurkezteko beharrik ez duela izango, esan bezala, hauek ez aurkezteak, bere irudi fidelean eraginik izango ez duelako. (Serra et al. 2011. 42. orr.)

Honen inguruan Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauek diote sozietate talde bat menderatzailea eta garrantzi erlatibo baxuko sozietate askok osatzen duenean, talde honen menderatzailea den sozietateak ez duela zertan urteko kontu bateratuak aurkeztu. (Serra et al. 2011. 42. orr.)

4. BATERAKUNTZA METODOAK

Baterakuntza burutzerako orduan, hainbat metodo aurkitu ditzakegu. Zehazki, hiru aukera desberdin daude; integrazio globalaren metodoa, integrazio proportzionalaren metodoa eta azkenik, partizipazioaren metodoa. (Alvarez et al. 30.orr)

4.1 Integrazio globalaren metodoa.

Enpresa taldeko sozietateei aplikatzen zaie. Metodo honetan sozietate dominatzaileak menpekoak direnen aktibo, pasibo, sarrera, gastu, kutxa-fluxu eta urteko kontuetako gainontzeko partidak euren egoera balantzean, galdu-irabazien kontuan, ondare garbiaren aldaketen egoera orrian eta diru-fluxuen egoera orrian barneratu beharko dituzte. Horretarako, beharrezkoa izango da sozietate guztien urteko kontuen homogeneizazioa eta egin beharreko eliminazioak burutuak egotea. (Serra et al. 2011. 60, 61. orr.; Igor Alvarez et al. 31.orr.)

Kasu hauetan, nahiz eta menpeko sozietatean %100ko partaidetza ez izan, gure sozietatean menpekoaren kontuak %100ean barneratu beharko genituzke guretan. Ondorioz, kanpo bazkideen ondarearen zati bat bateratutako balantzean agertuko da. (Serra et al. 2011, 61. orr.)

Hobeto ulertzeko, ikus dezagun adibide bat: (egileak proposatutakoa)

Demagun A sozietateak B sozietatearen %75eko partizipazioa duela eta bi sozietateen kontuak ondorengoak direla:

	Aktiboa	Pasiboa	Ondare Garbia
A sozietatea	5.000	4.000	1.000
B sozietatea	3.000	2.500	500

Suposatuko dugu A sozietateak, bere partizipazioagatik 375 ordaindu duela, hau da, B-ren ondare garbitik A-ri dagokion zatiak duen balioa ($500 \cdot 0.75$). Beraz, integrazio globala burutu ondoren, hauek izango lirateke A-k aurkeztu beharko lituzkeen kontuak:

	Aktiboa	Pasiboa	Ondare Garbia
Bateratua	8.000	6.500	1.500

Baina kontuan izan behar dugunez A-k ez duela B-ren partizipazioen %100a, gogoan izan beharko dugu kanpo bazkideek bateratutako balantzeko ondare garbiaren zati baten jabe izango direla. Beraz, hauek izango lirateke kontu zuzenak:

	Aktiboa	Pasiboa	Ondare Garbia
Bateratua	8.000	6.500	1375 + 125

$$1375 = 1.000 \text{ (A-rena zena)} + 500 \cdot 0.75 \text{ (A-rena den B-ren proportzioa)}$$

$$125 = 500 \cdot 0.25 \text{ (kanpo bazkideei dagokien B-ren proportzioa)}$$

Momentuz suposatuko dugu aktibo eta pasiboek ez dutela balio aldaketarik behar, adibide hau batez ere kanpo bazkideen eragina ikusteko baita. Beraz, baterakuntzarako egin beharreko idazpena ondorengo izango litzateke:

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Ondare garbia (kapitala+erreserbak+emaitza)	500	
Inbertsioa		375
Kanpo bazkideak		125

4.2 Integrazio proportzionalaren metodoa.

Sozietate taldeanitzei aplikatzen zaie. Metodo hau balantze bateratuan menpekoaren balantzeko kontuak honengan dugun proportzioaren arabera

barneratzean datza. Kasu honetan, baterakuntzan aktibo, pasibo eta galdu-irabazien partidak banan bana pasako dira balantze bateratura, bakarrik menderatzaileari dagokion ehunekoa barneratuz. (Serra et al. 2011, 64.orr.; Alvarez et al. 23.orr.)

Beraz, aurreko metodoan ez bezala, honetan ez da egongo kanpo bazkideen eraginik, bakarrik gurea den zatia gureganatzen dugulako gure kontu bateratuetan. (Serra et al. 2011, 64.orr.)

Argiago gera dadin, har dezagun berriro lehen proposatutako adibidea eta goazen aplikatzea metodo proportzionala.

	Aktiboa	Pasiboa	Ondare Garbia
A sozietatea	5.000	4.000	1.000
B sozietatea	3.000	2.500	500

Esan dugun bezala eta, A-k B-ren %75a duela gogoratuz, balantze bateratuan ondorengo zenbatekoak agertuko lirateke:

	Aktiboa	Pasiboa	Ondare Garbia
Bateratua	7.250	5.875	1.375

Ikus dezagun nola lortzen diren zifra hauek:

- $7.400 = 5.000 + 3.000 \cdot 0.75$, hau da, A-rena + A-rena den B-ren proportzioa.
- $5.875 = 4.000 + 2.500 \cdot 0.75$, hau da, A-rena + A-rena den B-ren proportzioa.
- $1.375 = 1.000 + 500 \cdot 0.75$, hau da, A-rena + A-rena den B-ren proportzioa.

Idazpenei dagokienez;

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Ondare garbia (kapitala+erreserbak+emaitza)	375	
Inbertsioa		375

Ikus daitekeenez, kasu honetan ez da kanpo bazkideen eraginik agertzen, soilik guri dagokigun proportzioarekin lan egiten dugulako.

Esan beharra dago, errealitatean %75eko partizipazioarekin, normalean kontrola izaten dela eta ondorioz, horrelako kasu gehienetan integrazio globalaren metodoa erabiliko genukeela, baina metodoen arteko konparazioa errazagoa izateko, hobe dela hiru kasuetan datu berdinak erabiltzea.

4.3 Partizipazioaren metodoa.

Sozietate elkartuei aplikatzen zaie. Metodo honetan hasiera batean sozietate batean egindako inbertsioa kostuagatik kontabilizatuko da eta ondoren, handitzen edo murrizten joango da ondare garbiak duen aldaketaren arabera eta baita menderatzaileak menpekoarengan duen partizipazioen ehunekoaren arabera. Ondorioz, prozedura ondorengoa izango litzateke: (Serra et al. 2011, 66.orr.; Álvarez et al. 33.orr.)

- 1) Ez dago urteko kontuen agregaziorik.
- 2) Partizipazioak dituen sozietatearen balantzean, finantza inbertsioaren balioa aldatu egingo da. Beraz, esan dezakegu inbertsio finantzarioen balorazio prozedura baten aurrean gaudela, kontabilitatearen baterakuntzarako soilik aplikatuko dena.
- 3) Inbertsio finantzarioaren kontabilitate balioa, menderatzaileak menpekoaren ondarean duen partizipazioagatik (menderatzaileak menpekoaren ondarearen duen zatiak duen balioagatik) ordezkatu da.
- 4) Bateratutako balantzean inbertsio honen zenbatekoa "baliokidetasunean jarritako partizipazioak" kontuan agertuko da.
- 5) Hasierako balorazioa eta gero, baliokidetasunean jarritako partizipazioaren balioa aldatuz joango da menpeko sozietatearen ondarearen balioa aldatzen doan heinean.

Argiago ikus dezagun, goazen adibide bat ikustera. Datuak aurreko adibideetakoak izango dira, nahiz eta zaila den %75eko partizipazioa izanda kontrola ez izatea eta ondorioz integrazio globalaren metodoa aplikatzea, baina hiru metodoen arteko konparazioa errazagoa izan dadin, esan bezala, datu berdinak erabiliko ditugu. Adibide hau lantzeko, Serra-ren liburuko 67. orrialdean dagoen adibidean oinarrituko naiz, nire datuei aplikatuz. Suposatuko dugu gainera, A-k B-ren partizipazioengatik 200 ordaindu duela.

	Aktiboa	Pasiboa	Ondare Garbia
A sozietatea	B-ren partizipazioak: 200 Gainontzeko aktiboa: 4.800	4.000	1.000
B sozietatea	3.000	2.500	500

Beraz, A-k B-ren partizipazioen %75a duela kontutan hartuz eta partizipazioen metodoa erabiliz, A-ren egokitutako balantzea ondorengoa izango litzateke:

	Aktiboa	Pasiboa	Ondare Garbia
A-ren egokitutako balantzea	Baliokidetasunean jarritako B-n eginiko inbertsioa: 375 Gainontzeko aktiboa: 4.800	4.000	1.175

Ikusten dugunez, ez da egon aktibo eta pasiboen agregaziorik. Hau da, B-ren aktibo eta pasiboak ez dira A-ren kontuetan barneratzen. Kasu honetan aldatzen dena A-ren balantzean dagoen B-n egindako inbertsioa da. Hasieran ordaindutako 200 horiengatik kontabilizatuta zegoen, baina geroago, baliokidetasunean jarritako baliora aldatu dugu.

Baliokidetasunean jarritako balioa A-k duen B-ren ondarearen zatiaren balioa izango da, hau da, $500 \cdot 0.75 = 375$. Beraz, ordaindutakoaren eta baliokidetasunean jarritako balioaren artean 175 ko diferentzia egongo da, $375 - 200$, alegia.

Diferentzia hau, A-ren ondarearen handitze bat suposatuko du. Beraz, A-ren egokitutako ondarea hasierako $1.000 +$ sortutako diferentziaren $175 = 1.175$ izango da.

4.4 Integrazio metodoen aplikazioa.

Ikusi dugunez, hainbat integrazio metodo daude. Ondorengo taulak ondo laburbiltzen du hauetako bakoitza noiz aplikatu beharko genukeen:

Metodoa	Zein kasutan aplikatu
Integrazio globalaren metodoa	Taldeko sozietateetan
Integrazio proporzionalaren metodoa	Sozietate taldeanitzetan (aukerakoa)
Partizipazioaren metodoa	Elkartutako sozietateetan Sozietate taldeanitzetan (aukerakoa)

4. Irudia: Integrazio metodoen aplikazioa Iturria:
Serra et al, 2011, 60. Orr. Egileak egokitua.

Esan beharra dago, metodo hauetaz gauza gehiago esan daitekeela, azalpenak askoz sakonagoak izan zitezkeela, baina merkataritza fondoa zer den ulertzeko, nahikoa izango zaigu esandakoarekin.

5. BATERAKUNTZAREN KONTABILITATE PROZESUA

Prozesu honetan, sozietate bakoitzak bere urteko kontu indibidualak prestatu beharko ditu, bai menderatzaileak, bai menpekoak, bai sozietate taldeanitzak eta baita sozietate elkartuak ere. (Serra et al. 2011, 68.orr)

Urteko kontu bateratuak prestatzeko, menderatzaileak taldekoak diren gainontzeko sozietateen urteko kontu indibidualak eskuratu behar ditu eta hauek bere urteko kontuetara gehitu. Gauza bera egin beharko du bere taldekoak diren sozietate taldeanitzen urteko kontuekin, baina hauek berari dagokion proportzioan gehituz, integrazio proportzionalaren metodoa erabiliz alegia. (Serra et al. 2011, 68.orr)

Partizipazioen metodoa erabiltzen den kasuetan, elkartutako sozietatean edo sozietate taldeanitzean partizipazioa duen sozietatearen balantzean egingo da lan, lehen esan dugun moduan inbertsio finantzarioetan aldaketak burutuz eta geroago ematen diren doikuntzak aurrera eramanez.

Urteko kontu bateratuak prestatzeko jarraitu behar diren pausoak ondorengoak dira: (Álvarez Melcón eta Corona Romero, 2011,38.orr)

- 1) Homogeneizazioa.
- 2) Agregazioa.
- 3) Eliminazioak.
- 4) Urteko kontu bateratuen formulazioa.

5.1 Homogeneizazioa.

Fase honetan urteko kontu bateratuetan barneratu beharko diren urteko kontu guztietan erabilitako irizpideak berdintzen dira. Hau da, urteko kontu guztietan irizpide berdina aplikatzen da agregazioan akatsik ez egoteko, dena era berean baloratuta egoteko, balantze guztietan gauzak berdin ordenaturik egoteko, kontzeptu guztiek gauza bera barneratzeko kontu desberdinetan. Dena berdin egoteko urteko kontu desberdin guztietan alegia. (Álvarez Melcón eta Corona Romero, 2011,38.orr; Alvarez et al. 2007. 39.orr.)

Zehatzagoak izan gaitezten, esan beharra dago berdintasun hori datan, balorazio irizpideetan, taldean emandako barne eragiketetan eta gehikuntzan lortu behar dela. (Alvarez et al. 33.orr)

5.2 Agregazioa.

Bigarren fase honetan taldeko sozietate guztien urteko kontuak batzen dira. Aurretik homogeneizatuak izan direnez, balantzeetako, galdu-irabazien orrietako, ondare garbiaren aldaketen egoera orrietako eta kutxa-fluxu egoera orrietako partidetako zenbatekoak gehitzen dira, horrela balantze agregatua, galdu-irabazi agregatua, ondare garbiaren egoera orri bateratua eta kutxa-fluxuaren egoera orri agregatua sortuz. (Álvarez Melcón eta Corona Romero, 2011,57.orr; Alvarez et al.2007.41.orr)

5.3 Eliminazioak.

Urteko kontuak era egoki batean prestatzeko, gehitutako urteko kontuetan hainbat ezabatze eta egokitzapenak egin beharko ditugu, bikoizpenak ekiditeko. (Serra et al, 2011, 68.orr.)

Gainera, esan beharra dago eliminazioak ez direla behin bakarrik burutu behar, baizik eta urteko kontu bateratuak prestatzen ditugun bakoitzean kontuan izan behar ditugula. Izan ere, urteko kontu bateratuak prestatzeko, esan bezala, taldeko urteko kontu indibidual guztiak izan behar ditugu eta, ekitaldiz ekitaldi, barne eragiketak eman daitezke, adibidez. (Álvarez Melcón eta Corona Romero, 2011,69.orr)

Aipatu dugu partizipazioaren metodoa erabiliz ez dela ematen kontuen agregazioa, beraz, eliminazioak soilik integrazio globalaren metodoa eta integrazio proportzionalaren metodoa erabiltzean burutu behar direla esan beharra dugu.

Normalean, eliminazioak hurrengo bi sailetan sailkatu genitzake, nahiz eta zenbait gehiago egon: (Álvarez Melcón eta Corona Romero, 2011, 57,69.orr)

- 1) Barne eragiketengatiko eliminazioak.
- 2) Ondare garbi eta inbertsioaren arteko eliminazioa.

5.3.1 Barne eragiketengatiko eliminazioak.

Taldekoak diren sozietateen barne eragiketak, taldekoak diren sozietateen artean ematen diren elkarren arteko eragiketak. Betiere, sozietatea taldekoa izatera pasa zenetik. Adibidez, askotan taldekoak diren sozietateen artean kredituak edo maileguak ematen dira, interesak sortzen dira etab. Beraz, interes horiek azken finean, taldearentzat irabaziak ez direnez, ezta gastua ere, urteko kontu bateratuetatik eliminatu beharko dira. (Alvarez et al..2007. 61.orr.)

Pentsa dezakegu hau egiterakoan informazioa galduko dela, baina kontutan izan behar dugu urteko kontu indibidualetan, gastu eta sarrera horiek, gastuak edo sarrerak izango direla, ez delako kontutan izaten beste sozietatea ere taldekoa dela. Eta beraz, horietan bai gastu eta sarrera moduan geratuko direla, nahiz eta urteko kontu bateratuetatik ezabatu.

Gai honetan sakontzeko aukera handia dago, adibide asko eta asko proposa baitaitezke eta baita barne eragiketa mota desberdinak daudelako eta hauek banan bana azal genitzakeelako, baina gure gaiarekin duen garrantzia erlatiboa handiegia ez denez, ez gara gehiago luzatuko puntu honekin.

5.3.2 Ondare garbi eta inbertsioaren arteko eliminazioa.

Integrazio globalaren metodoa eta integrazio proportzionalaren metodoa erabiltzean, bi sozietateen (menpekoa eta menderatzailea) urteko kontuak batzen direla esan dugu. Beraz, hau egiterakoan, aktibo bateratuan mendekoaren aktiboak eta gainera, menderatzaileak eginiko inbertsioa izango genituzke. Hau da, gauza bikoiztuta egongo litzateke eta horrela bateratutako aktibo, pasibo, gastu eta sarreretan. (Igor Alvarez et al.2007. 43.orr.)

Beraz, integrazio globalaren edo integrazio proportzionalaren metodoak erabiltzean, baterakuntzarako egin behar den ezabatze nagusia menpekoaren ondare garbiaren eta menderatzaileak eginiko inbertsioaren artekoa da. (Serra et al. 2011,69.orr.)

Kontuan izan behar dugu lehenengo baterakuntza datan eta ondorengo baterakuntza datetan ez dela modu beran ematen. Beraz, azter ditzagun bakoitza era independente batean:

5.3.2.1 Lehenengo baterakuntza datan.

Eliminazio honetan sortzen da merkataritza fondo bateratua edo baita ere baterakuntzako diferentzia negatiboa delakoa. Horregatik gu eliminazio honetan zentratuko gara.

Pauso honetan inbertitzaileak ordaindu duena eta erositakoaren arrazoizko balioa konparatzen dira. Eta, hain zuzen, bi balio horien diferentzia izango da

merkataritza fondoa edo baterakuntzako diferentzia negatiboa, ondoren ikusiko dugun moduan.

Eliminazio hau burutzeko, aipatutako homogeneizazioa burututa egon beharko da, baita eskuratutako aktibo eta pasiboen balorazioa ere. Momentu honetan, erositako aktiboren bat (eraikuntza bat adibidez) kontabilitate liburuetan duen balioa baino arrazoizko balio altuago bat badu, kontabilitateko balioa handitzeko aukera dago.

Gainera, erosleak erositakoak duen marka baten balioa adibidez, handitu egin dela susmatzen badu, merkatuan duen posizionamendu onagatik, honen balioa igo dezake bere bateratutako balantzean, nahiz eta urteko kontu indibidualetan marka kostuan erregistratua egongo den.

Beraz, esan dezakegu eliminazio honekin erosleak nolabait bere inbertsioa justifikatzen duela. Hau da, ordaindutakoa erositakoarekin konparatzen duela.

Kanpo bazkideak daudenean eta integrazio metodo globala erabiltzen dugunean, lehen azaldu dugun bezala, menpekoaren ondare osoa sartuko dugu eliminazio honetan, baina honi aurre egiteko, gure inbertsioa eta baita kanpo bazkideek egindakoa ekarriko dugu. Ikus dezagun adibide bat ondo uler dadin:

Demagun 2014/01/01 datan A sozietateak B sozietatearen %20a eskuratu duela 1.000.000.€gatik. B sozietatearen ondare garbiari buruzko informazioa ondorengo taulan laburtzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kapital Soziala	650.000
Erreserbak	250.000
Ekitaldiko emaitza	100.000
Guztira	1.000.000

Esan dugun bezala, eskuratze data 2014/01/01 da. Hau da, A-k data horretan lortu zuen B-ren kontrola. Hala ere, jar dezagun lehen baterakuntzako data 2014/12/31 dela. Honek esan nahi du urteko kontu bateratuak aurkezten diren lehenengo data 2014 ko abenduaren 31 izango dela.

Eliminazio honetarako kontutan hartzen den data eskuratze data da, nahiz eta baterakuntza urte bukaeran egin. Horregatik, filialaren ondare garbiaren zenbatekoaren kalkulurako ez dugu ekitaldiko emaitza kontuan hartuko, menderatzaileak menpekota erosi zuenean emaitza hau existitzen ez baitzen.

Gainera, erosleak detektatu du filialak duen eraikin baten arrazoizko balioa 200.000€koa dela eta kontabilitate balioa berriz, 130.000€takoa. Filialaren azterketan baita ere 30.000€ tan baloratutako patente bat aurkitu da.

Hau guztia kontutan hartuta, eliminazioa horrela geratuko litzateke:

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Inbertsioa	1.000.000	
Kanpo Bazkideak	200.000	
Kapital Soziala (filialarena)		650.000
Erreserbak (filialarena)		250.000
Eraikuntzak (filialarena)		70.000
Patentea (filialarena)		30.000
Merkataritza Fodo Bateratua		200.000

Egindako kalkuluak ondorengoak dira:

- Eraikuntzak 70.000 = eraikinaren arrazoizko balioa 200.000 – kontabilitate balioa 130.000.
- Merkataritza fondo bateratua = inbertsioa – matrizeari dagokion filialaren ondare garbiaren arrazoizko balioa. $1.000.000 - (650.000 + 250.000 + 70.000 + 30.000) * 0.8$.
- Kanpo bazkideak: filialaren ondare garbiaren arrazoizko balioa * kanpo bazkideei dagokien proportzioa, $1.000.000 * 0.2 = 200.000$.

5.3.2.2 Lehenengo baterakuntza ondorengo baterakuntza datetan.

5.3 puntuan esan dugun bezala, eliminazioak urtero burutu behar dira eta, urteroko eliminazioen artean, ondare garbiaren eta inbertsioaren arteko eliminazioa dago. Hala ere, merkataritza fondo bateratuari dagokionez, jasango duen aldaketa bakarra narriaduragatiko balio galera edo amortizazioa izango dira, ondoren azalduko dugun moduan. Beraz, ez gara puntu honetan gehiago sartuko.

6. MERKATARITZA FONDO BATERATUAREN DEFINIZIOA

Behin merkataritza fondoa gutxi gorabehera pixka bat kokatuta dugula, edo behintzat bere sorrera nondik eta zein puntutik datorren ikusi dugula, goazen kontzeptu honetan zentratzera eta gure helburura hurbiltzera, bere tratamendua zein den aztertzeraz, alegia.

Ezin dugu alde batera utzi agente erregulatuaren artean dagoen merkataritza fondo bateratuari buruzko eztabaida. Ondo ulertzeko, ezinbestekoa da agente hauek zeintzuk diren eta gai honen inguruko kontzeptuak nola erregulatu dituzten jakitea.

Alde batetik, Finantza Informaziorako Nazioarteko 3. Arauak (NIIF3), merkataritza fondoa erositakoak dituen aktibo ez identifikagarriek etorkizunean emango dituzten etekinengatik emandako aurrerakin bat bezala definitzen du. Zenbatekoari dagokionez, IASB-ek proposatzen duena (International Accounting Standards Board), nazioarteko arauak prestatzen dituen agenteak

hain zuzen, zera da; merkataritza fondo bateratua negozioen konbinaketaren soberako kostua da, eskuratutako sozietatearen aktiboak, pasiboak eta pasibo kontingenteak aitortu ondoren.

Bestetik, 2007ko uztailaren 4ko 6/2007 Legeak dioenez (Kontabilitate Plan orokorra baimentzen duena), merkataritza fondoa enpresa batek beste baten ondare guztia edo zati bat erosten duenean sor daiteke. Esan bezala ez da beti sortuko, bakarrik erositako enpresaren ondare garbiak kontableki balio duena baino gehiago ordaintzen denean emango da. Honen zenbatekoa kalkulatu ahal izateko, eskuratutako enpresaren aktibo eta pasibo identifikagarri guztiak egungo arrazoizko balioan baloratu behar dira eta, hauen arteko diferentzia izango da merkataritza fondoaren zenbatekoa. Aipatzekoa da aktibo edo pasibo baten kontabilitate balioa aldatzeko aukera soilik negozio baterakuntza momentuan egongo dela ³ (Aldaz Odriozola et al., 230. orr.).

Erositako enpresagatik kontableki balio duena baino gehiago ordaintzearen arrazoia beraz, eskuratutako enpresak dituen aktibo ez identifikagarrietan egongo da. Aktibo hauek balantzean egon ezin daitezkeenak dira. Adibidez, enpresa baten egoera balantzean agertzen den "bezeroak" kontua, bezeroek sozietateari zor diotena jasotzen du. Baina askotan, sozietate baten arrazoizko balioa kontabilitate balioa baino altuagoa izango da bere bezeroen fideltasunagatik, balantzean baloratuta agertzen ez dena alegia. Bezeroek ematen dioten balio honengatik erosleak kontableki balio duena baino gehiago ordaintzera bultzatzea dezake, bezero fidelek etorkizunean emango dituzten nolabaiteko etekin ziurrengatik hain zuzen.

Beste aktibo ez identifikagarri batzuk langile trebeak, hornitzaile egokiak, ekoizpen prozesu egokia edo banaketa sare ona izan daitezke.

Errealitatean merkataritza fondo bateratua eroslearen negoziaketa txar baten ondorioz sor daiteke. Lortutako erosketak prezioa erositakoarengatik ordaindu beharrekoa baino handiagoa denean ematen da hau. Negoziazioa aurrera eramanez eraman duen erosleak tratatu txarra egin duela onartu nahi ez duenean, ordaindutako gainbalio hori merkataritza fondoari dagokiola esan baitezake. Egoera honetan eta, aktibo ez identifikagarri buruz ari garela kontuan izanik, inork ezingo du baieztatu hori gezurra denik.

Esan beharra dago merkataritza fondo bateratua aztertzean bi ikuspuntu aurkitu ditzakegula, Finantzarioa eta ekonomikoa. Finantzarioa akziodunen ikuspuntutik ikusten du batez ere, ekonomikoa sozietate osoaren egoera aztertzen duen bitartean. Lehenengo kasuari jarraituz, merkataritza fondoa lantzerakoan, baterakuntzan soilik sozietateari dagokiona izango du kontuan eta, ekonomikoa berriz, kanpo bazkideen zatia ere bai. Argiago gera dadin adibide txiki bat ikusiko dugu: (Valeriano Frías, 2005)

Demagun A sozietateak B sozietatearen %60 eskuratu duela. Honen aktiboaren balioa 4.400 eurokoa da (lurren 2.800 eta gainontzeko aktiboen 6.000), pasibo eta ondare garbiarenaren berdina alegia. A sozietateak 2.700 euro ordaindu dituela suposatuko dugu. Gainera, Lur batek liburu balioan arrazoizko balioa dena baino 1.200 euro gutxiagotan baloraturik dago. Pasiboaren aldetik,

³ Hau horrela da eskuraketa datan amortizazioa dela eta, kontabilitate balioa zero izan daitekeelako baina errealitatean erosten ari garena zero baino balio altuago bat duelako.

kapitalak, erreserbak eta bestelako aktiboek osatzen dute, 1.600, 800 eta 6.400 hurrenez hurren. (Valeriano Frías2005,, egileak egokituta)

Beraz, eskuratutako ondareak guztira 2.400 eurokoa da eta, honen %60a, 1.440, A sozietateari dagokiona alegia. Ondorioz, kontableki balio duena baino 1260 euro gehiago ordaindu dira B sozietatearen ondareagatik.

Ikuspuntu finantzariotik, ordaindutako gehiengo horretatik 720 euro aktiboaren balio igoerari egotziko zaio, 1.200×0.6 alegia. Horrela, aktibo hori 3.520 eurotan barneratuko da balantze bateratuan, $(2.800 + 1.200) \times 0.6 + 2.800 \times 0.4$. Hau da, aktiboak zuen balioaren zenbateko osoa gehi, balio gehikuntza horretatik A sozietateari dagokion zatia.

Horrela, gehiegizko ordainketaren gainontzeko 540 euroak merkataritza fondoa izango lirateke eta, kanpo bazkideei dagokien ondarearen zatia berriz, 960 eurokoa.

Ikuspuntu ekonomikotik ordea, baterakuntzan eskuratutako ondarearen balioa 4.500 eurokoa da eskuraketa kostuan oinarrituta ($2.700/0.6$). Eskuratutako ondareak 2.400 euroko kontabilitate balioa du. Beraz, 2.100 euroko soberakina dago eskuraketa prezioarekiko. Aktiboaren balio aldaketa kasu honetan osorik hartuko da kontuan eta ez ikuspuntu finantzarioan bezala soilik sozietateari dagokiona (%60). Beraz, eskuratutako aktiboa balantze bateratuan 4.000 eurotan baloraturik barneratuko da $((2.800 + 1.200) \times 0.6) + (2.800 + 1.200) \times 0.4$). Ondorioz, 2.100 euro horietatik, 1.200 aktiboaren balio aldaketari dagozkio eta gainontzeko 900 euroak merkataritza fondoari.

Merkataritza fondo horretatik 540 euro akziodunei dagozkie eta gainontzeko 360 euroak kanpo bazkideei. Azken hauen partizipazioaren balioa balantze bateratuan 1.800 eurokoa izango da 4.500×0.4 . Hau da, ondarearen baliotik hauei dagokien ehunekoa.

Ondorengo taulak bi ikuspuntuek lortutako balio desberdinak jasotzen ditu:

	Finantzari oa	Ekonomik oa
Kapitala	1.600	1.600
Erreserbak	800	800
Lurrak		
Balantze bateratuan	3.520	4.000
Eliminazioan	360	600
Merkataritza fondoa		
Akziodunena	540	540
Kanpo bazkideena	-	360
Baterakuntzaren kostua	2.700	4.500
Kanpo bazkideak	960	1.800

Esan beharra dago, aurrerago ikusiko ditugun Informazio Finantzarioari Buruzko Arauek ikuspuntu finantzarioa erabiltzen dutela.

Ikusi duguna ikusita, ondoriozta dezakegu merkataritza fondo bateratua ez dela izango eskuratutako enpresarena, baizik eta dominatzailearena (eroslearena), erosketa momentuan ordaindutakoagatik sortzen delako alegia. Beraz, honek bere urteko kontu bateratuetan barneratu beharko du.

Gainera, arrazoi honengatik ere esan beharra dago kanpo bazkideak egotekotan, ez dutela inongo eraginik izango merkataritza fondoan, esan dugun moduan, erosleak (sozietate jakin batek, ez erosle guztiek) ordaindu duenaren araberrakoa izango baita eta gainontzeko bazkideek ordaindutakoarekin agian, ez zaie merkataritza fondorik sortu. Dena dela, besteek egindakoa guri ez digu eragingo, beraz, gurean zentratuko gara.

Esan beharra dago baita ere, badaudela negozio konbinaketen kasu batzuk non ondare garbiak duen arrazoizko balioa baino gutxiago ordaintzen den. Egoera hauetan, ez da merkataritza fondo bateratu negatiborik sortzen, baizik eta baterakuntzako diferentzia negatiboa. Hau gertatzen denean, zenbateko hau ekitaldiko sarrera bezala kontabilizatuko da menderatzailearen galdu-irabazian. (Serra et al. 2011, 73.orr; Norma Internacional de Información Financiera 3, 2003-2006, 56.par.)

Honen kausa eroslearen aldetik negoziaketa on bat edo baita ere erositakoaren aktiboan arrazoizko balioen kalkulu txar bat izan daitezke adibidez.

7. MERKATARITZA FONDO BATERATUAREN KOKAPENA KONTABILITATEAN

Kontabilitate plan orokorrak ibilgetua bi sailetan banatzen du. Ibilgetua enpresak bere jarduera aurrera eramateko aktiboan dituen ondare-elementuak dira, salgai ez daudenak. Epe laburrera enpresatik irtetea espero ez denez, aktibo ez korrontean kokatuko dira biak. Alde batetik ibilgetu ukiezina daukagu eta bestetik, ibilgetu materiala.

Ibilgetu ukiezinak 20 kontua dauka eta hau diru ez diren aktiboak dagokie, itxura edo gorputz fisikorik gabeak, baina ekonomikoki balioesteko modukoak. Hau da, nolabait esanda eta bere izenak dioten moduan, ukitu ezin daitezkeenak. Talde honetan egongo dira aplikazio informatikoak, jabetza industrialak, kontzesio administratiboak edo ikerketa eta garapena beste batzuen artean (Aldaz Odriozola et al. 2007, 229. orr.).

Ibilgetu materialak berriz, 21 kontua darama eta aktiboko elementu ukigarriak izango dira. Hauek ondasun higigarri nahiz higiezinetan gauzatuak izan daitezke, 22 taldean sartu beharreko ondasun higiezinetan egindako inbertsioak kanpo geratuko lirakeelarik. (Aldaz Odriozola et al. 2007, 232. orr.).

Definizioak esaten duena aztertuz, merkataritza fondoa ibilgetu ukiezinaren barruan sartuko genuke.

8. MERKATARITZA FONDO BATERATUAREN TRATAMENDU KONTABLEA

Aurreko puntuan esan bezala, merkataritza fondo bateratuari erreferentzia egiten diogunean, ibilgetu ukiezin bati buruz ari gara. Beraz, 2. Taldea erabili beharko dugu, zehazki "204. Merkataritza fondoa".

8.1 Merkataritza fondo bateratuaren sorkuntza:

Kontabilitate kontzeptu honen sorkuntza data, honen eragile den negozio konbinaketa data izango da, hau da, enpresa batek bestearen ondarea bereganatzen duenean. Kalkulurako, denbora guztian eskuratutako enpresaren datuak erabiliko ditugu. Lehen aipatu dugun moduan, momentu hau da kontabilitatearen arauak kontabilitate balioaren aldaketa baimentzen duten bakarra. (Alvarez et al. 2007)

Kalkuluak burutzerakoan, zenbateko guztiak eguneratuta ez badaude, eguneratu egin beharko dira, aipatutako kontabilitate balioen zuzenketak burutuz. Hau da, balantzearen aktiboan 100.000 euroko eraikin bat badago eta honen amortizazio metatua 90.000 eurokoa bada, bere kontabilitate balioa 10.000 eurokoa izango litzateke, baina demagun merkatuan eraikin horrek egun duen balioa 85.000 eurokoa dela. Egoera honetan, aktibo honengatik kontableki balio duena baino 75.000 euro gehiago ordaintzera prest egongo ginateke, merkatuan balio duena eta kontableki balio duenaren arteko diferentzia hain zuzen. Beraz, gainbalio hori eraikinari dagokiola demostratu dezakegunez, ez da merkataritza fondo bateratuan sartuko.

Ondorioz, merkataritza fondoaren zenbatekoa kalkulatu ahal izateko, beharrezkoa da aktibo guztien balio zuzenketak aurrez burutzea.

Enpresa baten ondare guztia eskuratzean, aktiboak eta baita pasiboak eskuratzen dira. Hau da, enpresa horren eskubide eta obligazio guztiak. Eskubideengatik diru gehiago ordaintzeko prest egongo da eroslea, baina obligazioak zenbateko hori murriztuko dute. Horregatik, enpresa baten balioa bere ondare garbiaren arabera izango da. Hau da, honen aktiboa eta pasiboaren arteko diferentziaren arabera hain zuzen. Hau dela eta, merkataritza fondoa erositako enpresaren ondare garbiagatik ordaindu denaren eta ondare garbia berak duen kontabilitate balioaren arteko diferentzia izango da, azken balio honi aktibo eta pasiboen zuzenketen emaitzak batuz, noski.

Enpresa baten ondare guztia erosi beharrean honen zati bat bakarrik erosten denean, merkataritza fondo bateratuaren zenbatekoa kalkulatzeko, egindako inbertsioaren eta eskuratutako ondarearen zati proportzionalaren zenbatekoak alderatuko dira.

Argiago gera dadin, enpresa bera erosteko egoera desberdinak planteatuko ditugu, hauen eragina zein izan daitekeen aztertzeko. Eskuratutako sozietatearen urteko kontuetako balantzea ondorengo dela suposatuko dugu:

Aktiboa		Ondare Garbia	
		Kapitala	120.000
		Erreserbak	50.000
Guztira	360.000	Gaineratikoa	25.000
		Pasiboa	
		Guztira	175.000

Gainera, sozietate honek 25.000€-ko arrazoizko balioa duen makina bat bere kontabilitatean 10.000€-tan baloratuta daukela pentsatuko dugu.

- Lehenengo kasu honetan, menderatzaileak mendekoaren ondare garbi osoarengatik 200.000€ ordaindu dituela suposatuko dugu, eliminazioa horrela geratuko litzatekeelarik:

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Kapital soziala (filialarena)	120.000	
Erreserbak (filialarenak)	50.000	
Gaineratikoa (filialarena)	15.000	
Makineria (filialarena)	15.000	
Inbertsioa		200.000

Ikusten denez, ez da merkataritza fondo bateraturik ezta baterakuntzako diferentzia negatiborik sortu ondare garbiaren arrazoizko balioa eta ordaindutakoaren balioa berdinak baitira. Gainera, ondare garbiaren %100a erosi denez, ez dago kanpo bazkideren eraginik.

- Bigarren kasu honetan berriz, menderatzaileak 200.000€ ordaindu ditu baina ondare garbiaren %80a-gatik. Beraz, hau izango litzateke eliminazioa:

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Kapital soziala (filialarena)	120.000	
Erreserbak (filialarenak)	50.000	
Gaineratikoa (filialarena)	15.000	
Makineria (filialarena)	15.000	
Merkataritza fondo bateratua	40.000	
Inbertsioa		200.000
Kanpo Bazkideak		40.000

Oraingoan, menderatzaileari dagokion ondare garbiaren arrazoizko balioaren proportzioaren zenbatekoa 160.000€-koa da, 200.000×0.8 hain zuzen. Hala ere, 200.000€ ordaindu dituzenez, 40.000€-ko merkataritza fondo bateratua sortu zaio, ezin baitu esan zenbateko hori zein aktibori dagokion, makineriari egotzitako 15.000€ horiekin egin duen bezala adibidez. Gainera, Ondare garbiaren %80a baino ez duenez erosi, gainontzeko %20a kanpo bazkideei dagokie eta horrela adierazi behar da eliminazioan.

- Hurrengo kasu honetan, menderatzaileak menpekoaren ondarearen %100a eskuratuko du baina 220.000€ ordainduz. Hau horrela izanda, eliminazioa ondorengoa izango litzateke:

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Kapital soziala (filialarena)	120.000	
Erreserbak (filialarenak)	50.000	
Gaineratikoa (filialarena)	15.000	
Makineria (filialarena)	15.000	
Merkataritza fondo bateratua	20.000	
Inbertsioa		220.000

Azken honetan, ez dago kanpo bazkideen eraginik, sozietatearen ondare osoa eskuratu baita, baina merkataritza fondo bateratua sortu da ondarearen arrazoizko balioa baino gehiago ordaindu delako, 20.000€ gehiago hain zuzen.

- Ondorengoan, sozietate menderatzaileak menpekoaren ondarearen %100a erosiko du 180.000€ ordainduz. Beraz, ondorengoa izango litzateke aurrera eraman beharreko eliminazioa.

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Kapital soziala (filialarena)	120.000	
Erreserbak (filialarenak)	50.000	
Gaineratikoa (filialarena)	15.000	
Makineria (filialarena)	15.000	
Inbertsioa		180.000
Baterakuntzako diferentzia negatiboa		20.000

Honetan, ez da merkataritza fondo bateraturik sortzen baina bai baterakuntzako diferentzia negatiboa. Izan ere, menderatzaileak menpekoaren ondarearen arrazoizko balioa baino gutxiago ordaindu du.

- Azken adibide honetan, suposatuko dugu menderatzailean ondarearen %80a eskuratu duela eta gainera 160.000€ ordaindu dituela. Beraz, eliminazio ondorengo eran geratuko litzateke:

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Kapital soziala (filialarena)	120.000	
Erreserbak (filialarenak)	50.000	
Gaineratikoa (filialarena)	15.000	
Makineria (filialarena)	15.000	
Inbertsioa		160.000
Kanpo Bazkideak		20.000
Baterakuntzako diferentzia negatiboa		20.000

Adibide honetan, eskuratutako ondarearen arrazoizko balioa baino gutxiago ordaindu da eta horregatik baterakuntzako diferentzia negatibo bat sortu da. Gainera, ez denez ondarearen %100a eskuratu, kanpo bazkideen eragina azaldu beharko dugu eliminazioan.

4. puntuan esan dugunez, baterakuntzako diferentzia negatiboa sortzen denean, honen zenbatekoa galdu-irabazian sarrera moduan kontabilizatuko dugu ondorengo eran: (Serra et al. 2011,75.orr)

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Baterakuntzako diferentzia negatiboa	20.000	
Ekitaldiko emaitza		20.000

8.2 Merkataritza fondo bateratuaren lehenengo baterakuntza ondorengo tratamendua.

Aipatu dugun moduan, merkataritza fondoa aktibo ukiezin bat izango da. Beraz, aktibo orok bezala, balio-aldaketak jasan ditzake. Espainiar legediari dagokionez, hutsune legal baten aurrean gaudela esan genezake. Izan ere, legedi honek ez du balio aldaketa honi buruz ezer aipatzen. Beraz, puntu hau lantzeko arau internazionalan oinarritu beharko gara batez ere, finantza informazioari buruzko 3. eta 36. arauetan.

8.2.1 Finantza informazioari buruzko 3. araua: Negozioen konbinaketa.

Alde batetik, NIIF3a daukagu, hau da, finantza informazioari buruzko nazioarteko 3. araua. Arau honek negozioen konbinaketak arautzen ditu, betiere kontrola duenak pertsona talde bat ez denean. Hau da, kontrola sozietate batek edo batzuek dutenean aplikagarria izango da (bertan aipatzen diren salbuespenetan izan ezik). (NIIF3,2003, 11.par.)

Lege honen arabera baterakuntza ondorengo urteetan menperatzaileak merkataritza fondo bateratuak euren urteko kontuetan duen balioari, honek jasandako narriaduragatiko balio galera kendu beharko dio. (NIIF3,2003, 54. par.)

Merkataritza fondo bateratua ez da amortizatuko, baizik eta balio narriadura jasango du. Urtean behin gutxienez enpresa dominatzaileak balio narriadura eman den aztertu beharko du, edo gehiagotan nazioarteko kontabilitateko 36. arauarekin bat etorritik balio narriadura eman dela susmatzen bada. (NIIF3, 2006, 55. par.)

Sozietateak bere urteko kontuen erabiltzaileei merkataritza fondo bateratuaren balio aldaketak ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa eman beharko die. (NIIF3, 2006, 74. par)

Gainera, entitateak Nazioarteko kontabilitateko 36. arauak eskatutako merkataritza fondo bateratuaren balio berreskuragarriari buruzko eta balio narriaduragatiko galerei buruzko informazioa aitortu beharko du. (NIIF3, 2006, 76. par.)

8.2.2 Nazioarteko Kontabilitateko 38. Araua: aktibo ukiezinak.

Merkataritza fondo bateratuarena araudiari buruzko informazioa bilatzeko logikoena aktibo ukiezinak arautzen dituen legera jotzea izango litzateke. Baina, nahiz eta merkataritza fondo bateratua aktibo ukiezin bat izan, lege hau ez da aplikagarria izango negozioen konbinaketa baten ondorioz merkataritza fondo bateratu bat sortzen den kasuetan, egoera hori aurreko legeak arautzen baitu. (Norma Internacional de Contabilidad 38, 2003, 3. par. f.)

Hala ere, lege honek merkataritza fondoari buruzko hainbat aipamen egiten ditu. Adibidez, bertan aurkitu dezakegu negozioen konbinaketa batean eskuratutako eta identifikagarriak ez diren aktiboak merkataritza fondoaren parte izango direla. (NIC 38, 2003, 10. par.)

Bestalde, lege honek dio enpresa barnean sortutako merkataritza fondoa ezingo dela negozioen konbinaketa baten ondorioz sortutakoa bezala, aktibo baten moduan identifikatu (NIC38, 2003, 48. Par)

8.2.3 Nazioarteko Kontabilitateko 36. Araua: aktiboen balio narriadura.

Lege honek dio negozioen konbinaketa batean emandako merkataritza fondo bateratu baten balio narriadura kalkulatu ahal izateko, honen zenbatekoa eskuraketan sortutako sinergiak aprobetxatuko dituzten menperatzailearen unitate diru-sortzaileen artean banatu behar dela. (Norma Internacional de Contabilidad 36, 2003. 80.par)

Merkataritza fondo bateratua berak bakarrik ez du dirurik sortzen, baizik eta beste aktibo edo aktibo multzo bat behar duela horretarako. Batzuetan merkataritza fondo bateratua ezin zaio era ez arbitrario batean unitate bakar bati egotzi. Kasu hauetan unitate multzo bati egotzi beharko genioke. (NIC 36, 2003, 81. par.)

Banaketa hau baterakuntza eman den ekitaldia itxi baino lehen bukatu ezin bada, baterakuntza ondoren hasten den lehenengo ekitaldia itxi baino lehen egin beharko dugu. (NIC 36, 2003, 84. par.)

Sozietateak merkataritza fondoa egotzita duen unitate diru sortzaile batean beste aktibitatearen bat badu, merkataritza fondoa aktibitatearen liburu balioan barneratu beharko da eragiketa honen emaitza jakitean eta unitatearen geratzen den zatia dagokion merkataritza fondoa aktiboan mantendu beharko da. (NIC 36, 86. par.)

Entitate batek bere unitate diru-sortzaileak berrantolatuko balitu eta horren ondorioz, unitate hauetako baten edo gehiagoren konposaketa aldatuko balitz, unitate hauei egotzitako merkataritza fondoa balore erlatiboaren metodoan oinarrituz, unitate afektatuen artean banatu beharko genuke. Hala ere, entitateak merkataritza fondoa banaketa hau eta gero hobeto adieraziko duen metodoaren bat dagoela frogatzen badu, hori erabiliko luke. (NIC 36, 2003, 87. par.)

Merkataritza fondoa egotzi zaion unitate diru-sortzaile bati urtero bere balioak narriadura jasan duen edo ez aztertzeko test bat egin beharko zaio, baita unitate hau hondatu egin dela susmatu daitekeenean. Horretarako, unitateak kontabilitate liburuetan duen balioa, honi egotzitako merkataritza fondoa barne, honek duen balio berreskuragarriekin alderatuko da. Balio berreskuragarri hau liburuetan duen balioa baino altuagoa bada, unitate hau narriatu ez dela esango genuke. Baina, aldiz, balio berreskuragarria liburuetako balioa baino txikiagoa bada, unitateak balio narriadura bat jasan duela esango genuke. (NIC 36, 2003, 90. par.)

Test honen datari dagokionez, ekitaldian zehar edozein momentuan egin daiteke, baina beti data berean. Hala ere, unitate desberdinak egonda, ez dira zertan denak egun berean aztertu. Hau da, unitate bakoitza beti data berean

aztertu beharko dugu, baina ez unitate guztiak egun berean. Aldi berean, unitate bati egotzitako merkataritza fondoa eskuratu den ekitaldian, unitate honen balio narriadura eman den edo ez, ekitaldi horren bukaera baino lehen aztertu beharko dugu. (NIC 36, 2003, 96. par.)

Unitate batek balio narriadura jasan duen edo aztertu baino lehen, unitate hori osatzen duten aktiboen balio narriadura aztertu beharko dugu. Era berean, merkataritza fondo bateratua egotzi zaion unitate diru-sortzaileen talde baten balio narriadura aztertu aurretik, unitate bakoitzaren balio narriadura aztertu beharko dugu. (NIC 36, 2003, 98. Par)

Aipatutako unitate diru-sortzaile baten balio narriadura ematen denean, unitate hau osatzen duten aktiboen artean banatuko da balio galera hori. Horretarako, ondorengo ordena jarraituz: (NIC 36, 2003, 104. par)

- 1) Lehenik, unitateak edo unitate multzoak duen edozein merkataritza fondo baten liburu balioa.
- 2) Ondoren, unitate edo unitate multzoaren gainontzeko aktiboen balioa, hauen balioaren proportzioan.

Balio narriadura hauek, aktibo indibidualen balio narriadura moduan landuko dira.

Balio narriaduragatiko galera bat banatzerakoan, ezingo da aktiboen liburu balioa ondorengo zifren artean altuenaren azpitik utzi: (NIC 36, 2003, 105. par)

- 1) Aktiboaren arrazoizko balioa ken salmenta gastuak (betiere zehaztu badaiteke).
- 2) Bere erabilpen balioa (zehaztu badaiteke).
- 3) Zero.

Balioaren berreskurapenari dagokionez, esan beharra dago merkataritza fondo bateratuaren balio narriadura ezingo dugula berreskuratu. (NIC 36, 124. Par)

Izan ere, Nazioarteko Kontabilitateko 38. Arauak, bere 48. paragrafoan, esaten du enpresa barruan sortutako merkataritza fondoa, negozioen konbinaketa baten ondorioz sortutakoa ez bezala, ezingo dela aktibo moduan identifikatu. (NIC 36, 2003, 125. Par; NIC 38, 2003, 48. Par)

Beraz, esan dezakegu balio narriaduraren nolabaiteko berreskurapen hori, enpresa barruan sortutako merkataritza fondoaren balio igoera bat izango dela, eta ez eskuratutako merkataritza fondoaren balioaren berreskurapen bat. (NIC 36, 2003, 125. Par)

Merkataritza fondo bateratuaren balio narriadura ematen denean, baita beste aktibo indibidualena ematen denean ere, entitateak bere memorian balio narriaduraren aitopenera eraman duen arrazoia aitortu beharko du, balio narriaduraren zenbatekoa eta azkenik, merkataritza fondo bateratuaren jatorria zein den adierazi beharko du. (NIC 36, 2003, 130. Par)

Unitate diru-sortzaileari egotzitako merkataritza fondo bateratuaren (edo edozein aktibo ukiezinaren) proportzioa merkataritza fondo bateratu osoarekiko garrantzi erlatiboa duela frogatzeko, entitateak unitateari edo unitate multzoari egotzitako merkataritza fondoaren liburu balioa zehaztu beharko du bere memorian: (NIC 36, 2003, 134. par.)

Merkataritza fondoaren liburu balioa edo, honen zati bat hainbat unitate diru-sortzaileen artean banatu bada eta, bakoitzari emandako balioa erlatiboki txikia bada merkataritza fondoaren balio totalarekin alderatuz, entitateak horrela jakinarazi beharko du, baita egotzitako zenbateko horiek zenbatekoak diren ere. Gainera, unitate horietako batzuen balio berreskuragarria hipotesi klabe berean oinarritzen bada eta, unitate hauei egotzitako merkataritza fondoaren balioen batuketara merkataritza fondoak liburuetan duen balio totalarekiko garrantzi erlatiboa badu (edo aktibo ukiezinen batekin gauza bera gertatzen bada), entitateak ondorengo informazioa eman beharko du: (NIC 36, 2003, 135. Par)

- 1) Unitate hauei egotzitako merkataritza fondoaren (edo bizitza mugagabeko aktibo ukiezinen) balioen batuketaren zenbatekoa.
- 2) Aipatutako hipotesiaren deskribapen bat, zein hipotesiaren inguruan eman den jakiteko.
- 3) Zuzendaritzak hipotesi bakoitzerako balorazioak egiterakoan erabilitako ikuspegia zein izan den.

Hau guztia praktikan nola egin beharko litzatekeen ikusteko, ondorengo adibidea erabiliko dugu:

Demagun A sozietateak B sozietatearen akzioen %100 erosten duela 2.000.000 eurogatik, B sozietatearen ondare garbiak 1.500.000 euroko balioa duelarik. Beste adibideetan ikusi dugun moduan, 500.000 euro horiek merkataritza fondo bateratuari dagozkio.

Aldi berean, A sozietateak zituen Urola, Urdaibai, Oria, Nerbioi eta Oiartzun unitate diru sortzaileen artean ondorengo eran banatu du merkataritza fondo bateratu hori:

Unitate diru sortzailea	Egotzitako merkataritza fondo bateratua
Urola	140.000
Urdaibai	70.000
Oria	90.000
Nerbioi	120.000
Oiartzun	80.000

Hurrengo ekitaldian, merkataritza fondo bateratuaren balio narriadurari buruzko testa burutzerakoan, ondorioztatu unitate hauei esker A sozietateak jasoko zituen diru fluxuak ondorengoak izango zirela:

Unitate diru sortzailea	Egotzitako merkataritza fondo bateratua
Urola	155.000
Urdaibai	90.000
Oria	90.000
Nerbioi	95.000
Oiartzun	65.000

Ikus dezakegunez, Urola eta Urdaibai unitateetan balio berreskuragarria kontabilitate liburuetakoa balioa baino altuagoa da, Oria unitatean berdin mantentzen da eta, azkenik, Nerbioi eta Oiartzun unitateetan balio berreskuragarria kontabilitate balioa baino txikiagoa da.

Beraz, balio berreskuragarria kontabilitatekoa baino altuagoa edo berdina den kasuetan, merkataritza fondoaren balioa ez genuke aldatu beharko. Balio berreskuragarria kontabilitatekoa baino baiagoa den kasuetan ordea, kontabilitateko balioaren zenbatekoa balio berreskuragarriaren berdina izan arte murriztu beharko dugu, balio narriadura bat erregistratuz alegia.

Aldaketa hauek burutzeko beharrezko idazpenak ondorengoak izango lirateke:

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Merkataritza fondo bateratuaren balio narriadura gastua	40.000	
Merkataritza fondo bateratuaren balio narriadura		40.000

Kontzeptua	ZOR	HARTZEKO
Merkataritza fondo bateratuaren balio narriadura gastua		40.000
Ekitaldiko emaitza	40.000	

9. MERKATARITZA FONDO BATERATUA BENETAKO URTEKO KONTUETAN

Orain arte aipatutako guztia errealitatean nola lantzen den ondo ikusteko, IBEX 35-ean dauden enpresen urteko kontuak hartuta, goazen ikustera zer esaten duen sozietate bakoitzak bere aktibo eta memorian merkataritza fondo bateratuari eta honen aldaketei buruz. Sozietate hauen urteko kontuak aukeratu ditugu dokumentu publikoak direlako, sozietate handiak direlako eta beraz, informazio gehiago aurkituko dugula uste dugulako, urteko kontu hauek guztiak ikuskatuta daudelako eta gainera, arau internazionalak jarraitzen dituztenez, merkataritza fondo bateratuaren inguruko jarraibide egokiagoak aurkituko ditugula uste dugulako.

Abengoa S.A.

Sozietate honen 2014 ekitaldiko urteko kontuetan ikus dezakegu 2014 eta 2013 urteetako ekitaldietan merkataritza fondoa dagoela eta, gainera, honen balioa handitu egin dela azken urtean.

Memoriari dagokionez, honen barruan badute merkataritza fondo bateratua izeneko atal bat, aktibo ukiezinaren barruan kokatuta. Bertan merkataritza fondoa zer den aipatzen dute eta baita honen kalkulua nola egiten den. Balio narriadurari buruz esaten dutena da merkataritza fondo bateratua unitate diru-sortzaileetan banatzen dela eta gero hauen balio narriadura aztertzen dela aldi berean merkataritza fondoarena aztertu ahal izateko.

Kasu honetan, memorian esaten da merkataritza fondoa egotzi zaien unitate diru sortzaile guztiek euren liburu balioa berreskuratzeko aukera dagoela eta, ondorioz, arrazoizko balioa liburuetan duena baino altuagoa dela. Beraz, sozietate honen merkataritza fondo bateratuak ez du balio narriadurarik jasan 2014 urteko ekitaldian.

Merkataritza fondoak jasandako igoera horren arrazoiak Dolarraren eta Brasilgo Errealaren Euroarekiko balio aldaketak direla esaten da baita ere memorian. Hala ere, esan beharra dago merkataritza fondoak behera egin zuela baterakuntzako perimetroan aldaketak egon zirelako, Befesa sozietatean zuen partizipazioa saltzeagatik hain zuzen. Hala eta guztiz ere, aldaketa hauekin guztiekin, bukaerako saldo totala 2014ko abenduaren 31an 2013ko data berean baino altuagoa izan zen, ikusi ahal izan dugun bezala.

Sozietate honen memorian merkataritza fondoa nola banatu duten azaltzen dute ondorengo taula erabiliz:

Fondo de comercio	Saldo a 31.12.14	Saldo a 31.12.13
Abener Engineering and Construction Services, LLC (Ingeniería y construcción)	26.658	25.663
Abengoa Bioenergía Brasil (Bioenergía)	354.437	351.280
Abengoa Bioenergy USA (Bioenergía)	36.621	32.334
Rioglass Solar (Ingeniería y construcción)	38.914	38.919
Otros	31.015	27.863
Total	487.645	476.059

4. Irudia: Abengoa SAREN merkataritza fondoak
Iturria: Abengoa SAREN urteko kontu bateratuak

Abertis Infraestructuras S.A

Kasu honetan, balantzean ikus daiteke 2013 ekitaldi hasieran merkataritza fondoak ekitaldi bereko bukaeran baino balio altuagoa zuela. Lehendabizi goazen ikustera 2014 urtean zer pasa zen eta ondoren aztertuko dugu balio horren jaitsieraren arrazoia zein den.

2014 urteko ekitaldian, merkataritza fondoak balioa handitu zuen. Honen arrazoia memorian azalduta dago eta, honen arabera, 2013 urtean eskuratutako Hispasat sozietatearen aktibo eta pasiboen balio aldaketaren ondorioz (NIIF3 ak dioen moduan, urtebeteko epea dago aktibo eta pasibo hauen balioa zehazteko, informazio falta dela eta eskuraketa datan egin ezin

bada beti ere) 44.663 mila eurotan handitu da merkataritza fondoa. Gainera, 2014 ekitaldian Abertis-ek TowerCo sozietatea eskuratu zuen integrazio globalaren metodoz eta eragiketa honen ondorioz, 2.995 mila euroko merkataritza fondoa sortu zen.

Balio galeraren inguruan aurkitu dezakegun informazio bakarrak dibisen aldaketengatik eman dela esaten digu. Beraz, aurreko kasuan bezala, honek merkataritza fondoak gora egitea suposatzen du honetan ere

Sozietate honek horrela banatzen du bere merkataritza fondoa:

	31 diciembre 2014	31 diciembre 2013 (reexpresado)
Autopistas		
Subgrupo HIT/Sanef	2.830.803	2.830.803
Subgrupo Arteris	734.408	726.089
Iberpistas	308.224	308.224
Avasa	245.650	245.650
Aucat	178.447	178.447
Rutas del Pacífico	26.400	26.824
Los Andes	20.396	20.723
Libertadores	17.105	17.380
Aulesa	9.985	9.985
Autopista del Sol	8.935	9.079
Otros	2.510	2.776
	4.382.863	4.375.980

5. Irudia: Abertis Infraestructuras SAREN merkataritza fondoaren banaketa.

Iturria: Abertis Infraestructuras SAREN 2013 urteko kontu bateratuak

2013 urtean emandako beherakada zergatik izan zen aztertzeko, 2013 ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertuz, aurkitutako balantzean ondorengo ikusi dezakegu:

	Notas	31.12.2013	31.12.2012
ACTIVOS			
Activos no corrientes			
Inmovilizado material	7	1.891.599	1.798.100
Fondo de Comercio	8	4.669.475	5.144.574
Otros activos intangibles	8	13.064.357	14.147.224
Participaciones en entidades asociadas	9	455.503	585.581
Activos por impuestos diferidos	18.c	711.440	840.642
Activos financieros disponibles para la venta	10	251.769	465.885
Instrumentos financieros derivados	11	19.180	162.936
Deudores y otras cuentas a cobrar	12	2.321.340	2.136.598
Activos no corrientes		23.384.663	25.281.540

6. Irudia: Abertis Infraestructuras SAREN aktibo ez korrontea.

Iturria: Abertis Infraestructuras SAREN 2013ko urteko kontu bateratuak.

Memoriara jotzen badugu, hurrengo taula aurkituko dugu:

	Fondo de comercio
A 1 de enero de 2013	
Coste	5.144.574
Amortización acumulada y pérdida de valor (deterioro)	-
Valor neto contable	5.144.574
2013	
Valor neto contable apertura	5.144.574
Diferencias de conversión	(187.969)
Altas	-
Bajas (neto)	-
Traspasos	-
Cambios de perímetro y combinaciones de negocio	(67.701)
Dotación a la amortización	-
Pérdidas de valor	-
Otros	-
Traspaso a activos mantenidos para la venta y operaciones interrumpidas (ver Nota 6)	(219.429)
Valor neto contable al cierre	4.669.475

7. Irudia: Abertis Infraestructuras SArene merkataritza fondoaren aldaketa 2013 ekitaldian.
Iturria: Abertis Infraestructuras SArene 2013ko urteko kontu bateratuak.

Taula honetan ikusten den moduan, gantzia diferentzien eragina nabarmena da kasu honetan berriz ere eta, gainera, 2013 ekitaldian Sozietateak Overon enpresan zuen partizipazioa saldu zuen memorian azaltzen den bezala, merkataritza fondoaren zenbatekoa murriztuz.

Aipatu beharra dago urteko kontu hauetan ez dutela merkataritza fondoaren inolako balio narriadurarik aipatzen.

Acciona S.A.

Sozietate honen kasuan, bai 2013 eta bai 2014 urteetan merkataritza fondoa aurkitu dezakegu egoera balantzean. Aipatutako bi urteetan honen zenbatekoa oso antzekoa izan da, nahiz eta murrizketa txiki bat eman den. Hala ere, aipagarria da 2012 urtetik 2013ra kontzeptu honen zenbatekoaren beherakada nabarmena izan zela. Nahiz eta beherakada nabarmen hau 2013 ekitaldian eman zen, hau da 2012ko abenduaren 31tik 2013ko data berera, 2014ko ekitaldiko urteko kontuetan honen zergatia ulertzeko beharrezko informazioa dago. Hona hemen izan duen bilakaera:

ACTIVO	Nota	31.12.2014	31.12.2013	31.12.2012
Inmovilizado material	4	8.012.540	7.831.280	9.325.509
Inversiones inmobiliarias	5	180.851	117.249	122.014
Fondo de comercio	6	79.295	79.305	1.011.720
Otros activos intangibles	7	532.431	633.879	749.618
Activos financieros no corrientes	10	155.734	239.932	203.844
Inversiones contabilizadas aplicando el método de la participación	8	390.150	473.167	528.530
Activos biológicos	11	6.836	6.830	6.825
Activos por impuestos diferidos	22	976.874	1.001.566	874.060
Deudores a largo plazo y otros activos no corrientes	12	436.710	384.530	345.384
ACTIVOS NO CORRIENTES		10.771.421	10.767.738	13.167.504

8. Irudia: Acciona SArek aktibo ez korronea.
Iturria: Acciona SAREN 2014ko urteko kontu bateratuak.

Esan bezala, ikus dezakegu 2013tik 2014ra emandako aldaketa txikia dela. Memorian begiratu, esan daiteke ez dagoela arrazoi bakar bat. Izan ere, ondoren ikusiko dugun moduan, ez dute bestelako esplikaziorik ematen. Hain zuzen ere, bestelako narriadurari egozten diote balio aldaketa hau, eta ez geroago ikusiko dugun moduan, unitate diru sortzaile jakinen bati. Hau da enpresak aurkeztutako merkataritza fondoak 2014 ekitaldian jasandako balio narriadurari buruzko laburpen taula:

	Saldo a 31.12.13	Altas	Deterioros	Otras variaciones	Saldo a 31.12.14
Subgrupo Acciona Facility Services	50.962				50.962
Subgrupo Acciona Agua	27.976				27.976
Subgrupo Acciona Wind Power	--				--
Otros	368			(10)	357
Total	79.305	--	--	(10)	79.295

9. Irudia: Acciona SAREN merkataritza fondoak jasandako balio narriadura 2014 ekitaldian.
Iturria: Acciona SAREN 2014ko urteko kontu bateratuak.

Esan bezala, emandako narriadura, beste unitate diru-sortzaileen artean banatzen da. Hau da, garrantzi erlatibo gutxi duten hainbat unitate diru-sortzaileen artean banatzen da balio narriadura hau.

2013an ordea, lehen aipatu dugun moduan, beherakada nabarmen bat eman zen. Beraz, goazen hau aztertzerara. Sozietateak aurkeztutako merkataritza fondoaren balio aldaketaren laburpen taula ondorengoa da:

	Saldo a 31.12.12	Altas	Deterioros	Otras variaciones	Saldo a 31.12.13
Subgrupo Acciona Energías Renovables	854.287	0	-853.489	-798	0
Interlogística del Frío, S.A.	5.147	0	-5.147	0	0
Subgrupo Trasmediterránea	24.878	0	-24.878	0	0
Subgrupo Acciona Facility Services	78.639	0	-27.677	0	50.962
Subgrupo Acciona Agua	27.976	0	0	0	27.976
Subgrupo Acciona Wind Power	18.996	0	-18.996	0	0
Otros	1.797	0	-1.371	-59	367
Total	1.011.720	0	-931.558	-857	79.305

10. Irudia: Acciona SAREN merkataritza fondoak jasandako balio narriadura 2013 ekitaldian.
Iturria: Acciona SAREN 2014ko urteko kontuak.

Esan beharra dago sozietate honen merkataritza fondo nagusiak energia berriztagarrien azpitaldean (edo unitatean) zeudela. 2013. urteko bigarren seihilekoan ordainsariei buruzko marko legala aldatu egin zen eta honek, gogor jo zuen taldea ikuspuntu finantzario eta errentagarri batetik. Ondorioz, taldeak bere helburuak aldatu behar izan zituen, hedapen internazionala kaltetuta izan zelarik. Energia berriztagarrien multzoa garrantzitsuena izanik, batez ere Estatu batuetan eta Kanadan kokatzen zen. Hori dela eta, eta, helburu aldaketak kontuan izanik, oso kaltetuta suertatu zen eta honi zegokion merkataritza fondo osoa galdu zuten.

Gainontzeko merkataritza fondoek jasandako balio narriadura arrazoi beragatik izan zela aipatzen da urteko kontuetan. Hau da, legedia aldatzearen ondorioz sozietate taldearen helburuen aldaketa.

ACS Actividades de Construcción y Sevicios S.A.

Kasu honetan, 2013 urtean zegoen merkataritza fondoa 2014ean egon zena baino txikiagoa zen. Hau da, merkataritza fondoaren zenbatekoa handitu egin da urte batetik bestera.

